

**Nekazal elkagalen
herriarteko azoka**

TIRA
BIRA
ORMA
IZ
G

**IRAGANA
ARAKATUZ**

euskaldunon
Egunkaria

Jaia

SEBASTOPOLEKO TITIRTEROAK
PIRATAK

TXARANGAK

TRIKITILARIAK

DULTZAINEROAK

ANTZERKIA

ZANDAN ZAHARRAK

GOZATEGI

TRIKITIXA KONTRAIRO

BERTSOLARIAK

JOXE RÍPIAU



OS DIPLOMATICOS
EXKIXU

KAXIANO-MARKOS LANDA

MIKEL MARKEZ

TRIKI TA KE

MAIXA TA ITZIAR

BITTOR AIAPE

EGAN...

EUSKAL

PRENTSAREN

EGUNA

Ekainak 9 Sagues Donostia

GOIERRITARRA
HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:
Goierritarrak Kultur Elkartea

Dorre-etxea, 1
(Postetxe gainean)
124 posta-kutxa
20240 Ordizia
Tfnoa: 88 96 12
Faxa: 88 27 19

Zuzendaria:

Loinaz Agirre

Maketazioa:

Mikel Albisu

Publizitatea:

Josune Agirre

Erredakzio Batzordea:

Dionisio Amundarain, Jon Arano, Mikel Albisu, Joseba Telleria, Ane Martin, Loinaz Agirre eta Estitxu Imaz.

Zenbaki honetako kronista eta kolaboratzaileak:

Aitor Calvillo, Joseba Telleria, Jon Aizpurua, Rufino Iraola, Izaskun Salazar, Xabier Urteaga, Joxe Antonio Lasa, Idurre Eskisabel, Dionisio Amundarain, Andoitz Telleria, Josune Amondarain, Edurne Albizu eta Aitziber Murua.

Fotokonposizio eta maketazioa: GOIERRITARRA.

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga 9. Oñati)

Tirada: 5.700 ale.

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

HAMABOSTALDIAN NABARMEN



Itun Berria eta 'Belarritik Bihotzera', euskaraz

Hirueledun Itun Berria, grekoa-latina-euskara, eta 'Belarritik Bihotzera' Bibliako pasarte aukeratuak biltzen dituen konpakto eta kaseteak kaleratu dituzte Bibli Elkartek Batuak eta Lazkoako Pax Argitaletxeak, Dionisio Amundarainen ekimenez.

Ramon Irizar, Iñaki Mendiguren eta Dionisio Amundarainek prestatu dute Itun Berriaren edizioa. Liburu honek Teologia eta Filologia Fakultateetan eta Euskal Herriko apaiztegie-tan hutsune handia beteko duela uste du Amundarainek.

'Belarritik Bihotzera' lana bi konpakto eta bi kaseteek osatzen dute. Itun Zaharreko 31 pasarte eta Itun Berriko 36 pasartek biltzen dituzte. Testuak Elizen Arteko Bibliatik hartuak dira, zenbait egokitzapen eginik. Euskal Herriko 13 esatari profesionalen ahotik esa-

nak. Dohainik. Dionisiori sortu zitzaion lan hau egiteko ideia. "Errepideetan asko ibiltzen garenok, beste kasete batzuk izaten digun bezala, Biblia pasarteak entzuteko hutsa nabaritu izan dut", aitortu du. Gainera, "aukera egokia da garai batean aitona-amonen ahotik entzuten ziren Bibliako pasadizoak teknika modernoaren bidez dastatzeko", dio Dionisiok.

Lazkaoko Beneditarren Anaidia izan da koproduttore. "Euskararentzat eta euskal kulturarentzat funtsezko diren lanak piskana-ka gauzatzea pozgarria da", aitortu du Errupin Mujika beneditarrak.

Gerriko liburudenda da banatzaile orokorra. Itun Berria 4.200 pezetan dago salgai. 'Belarritik Bihotzera' bi konpaktoak 3.200 eta bi kaseteak 1.100 pezetan.

BOTA BERTSOA



Mikel Aranburu

Galindo

Doinua: Lurraren pean

Galindo jaunak gaiztakerian du berebiziko grina hainbat famili euskaldunetan harek egin duen mina Intxaurrendoko burutik pasa eta jeneral egina azkenaldian justiziakin dauka konpondu ezina txerri guztiei iristen zaie beti beren San Martina.

Espetxeratu dutela eta zer nolako iskanbila ustekabean gelditu zaie buelta emanda tortila alper alperrik hasiko dira orain aitzakien bila guk badakigu bere atzetik badagoela beste pila beste gauzarik ez genduke nahi dena argitu dedila.

Eusko Jaularitza-ko Kultura Sailak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta

GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria



GOIERRITARRA doan
jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

Helbidea

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

Oposizio batzuetako galderak

Askotan, edozein lanpostutarako ere oposizio-lehiaketak egin direla jakiteak, gauzak bere onean eginda behintzat, lanpostua horni-tzeko prestakuntzarik oneneko pertsonak hautatuko direnaren irudia sortarazten digu, baina oposizio-lehiaketetan zer eskatzen edo galdetzen den aztertuko bagenu, beste iritziren bat izango genuke.

Enpresa pribatuetan, normalean, lanean egiten jakin behar denaz galde-tzen da eta haren arabera aukeratzen da langilea. Herri-administrazio deituan aldiz oso bestela dira gauzak eta egin behar denaz galderak egiten badira ere, maiz, edozein lanposturako ere, sistemaren galderak baino ez direnak egiten dira (konstituzioaz, etab.) eta hainbat eta hainbat puntu bederen horrelako galderak erantzunez lortu beharra izaten dute oposizio-lehiaketetan eskuhartzen dutenek, beti ere, benetan profesionalak diren galderen kaltetan noski. Horrek, garai bateko "Formación del Espíritu Nacional" hark, gaur egun ere, "Ezarritako sistemaren" ildoko galderekin jarraipena baduela frogatzen ditu, izen batzuek aldatuak izan arren.

Gure garaian Errege bisigodoen zerrendak edota bataila handien datak (arrotzak beti ere) irakasten zizkiguten eta geroago sistema horiek historia ez ikasteko metodorik hoberenentzat joak izan dira. Orain ordea, berriro ere

halakoetara itzuli nahi duenik badela dirudi.

Zenbaitek gauzek zeinen sistemakoi egiten jarraitzen duen azaldu nahi dizuet. Beasaingo Udalak, beste guztiek bezalaxe, Errolda-berritze lanak egiteko jendea aukeratu behar zuen eta horretarako Goierriko Lanbide Eskola izendatu zuen azterketa-jartzaile. Lehen begiradan esan zitekeen Administrazioerriak alde batera utzi eta herri-ezagutza oinarrituko zela azterketa. Bai, herriaz ere zerbait galdetuak dira, baina bitxia bezain lekuz kanpokoa da Errolda egin behar dutenak hautatzeko egungo Espainiako Erregeak Erregetza noiz hartu zuen galdetzea, edota bere seme printzea Errege izatera heltzen denean zenbatgarren Felipe izango den galdetzea. Hori Lanbide Eskolako Irakasle denak Beasainen Errolda-lanak egiteko kultur arloan puntuagarri dela iritzien badio, guri Errege bisigodoen izenak eta "FEN" irakatsi zigutenetarik ez dago oso urruti, nahiz eta, orduan ordukoarekin eta gaur gaurkoarekin izan. Gero, ez harritu Beasaingo edozein baserri izen edo auzo-izen edo Joan Iturralde nor izan zen ez jakitea. Nork esan zezakeen 1996an etxez etxe datu-bilketak egiteko horrelako galderekin puntuak lortuko zirenik? Non dago hemen askoren zentzua? Zer ulertzen dute hemen batzuek kulturaz?

Andoni Sarriegi Eskisabel
(Beasaingo Udaleko Euskararen Arduraduna)

Hau ez da joku bat: Nire aitaren etxea erretzen baitute

Ez noa aipatzera zenbait kontenedore, banketxe edo autobus erre dituzten aurpegia estalita daramaten independista gazte horiek. Edota zenbat egun daraman bahituta Ortega Lara kartzeleroak. Hauek ondo baino hobeto informatzeko baitigute egunero "komunikabideek". Baina komunikabide publiko guzti hauek kontenedore batzuk erretzea baino zerbait la-tza-goari buruz ez dute tutik ere esaten. Zerari buruz ari naiz: milaka euskal aber-tzaileen etxeen erreketak, ez bakarrik ia 700 preso politikoen, 2.000 errefuxiatuen, hainbat eta hainbat gudari torturatuen edo hilik daudenena, bai-zik eta abertzale den edozeinen etxea.

Honela da, gure hizkuntza erasotua denean legeengatik (Ley de Ordenamiento Lingüístico Navarro, Espainiar Konstituzioa...), ekintzeengatik (ertzantzari euskaraz erantzuteagatik atxilotetako, erdarazko komunikabideei lehentasun eta bul-tzada...) edo ingurugiro eta natura hondatzen denean (Espainiako plan hidrologiko nazionalarekin, zerurainoko autopistekin, superportuekin...).

Herri hau indarrez zatituta dago: indarraren legea (Autonomi Estatutua, Konstituzio Española...), armen indarrez (kolore guztietako kuartelak lege hauek defendatzeko kokoteraino armatuak, matxinada mota guztiak deu-

sezteko...). Herri honi bere hizkuntza, kultura edo nortasuna ezeztatzen zaionean, gure aitaren etxea erretzen ari dira.

Herri hau beti leiala izan zaio bere nortasunari. Bere independentzia lor-tzeko borrokan jarraitzen du. Euskaldunon historia begiratzeko, konturatzen gara indarke-ri egoera hau urrundik datorrela. 1512. urtean euskaldunon erreinuak, Nafarroa zenak, independentzia galdu zuenetik, beti indarrez, Duque de Albaren menpean. Ordudik, eta lehenagotik ere, herri honek borrokan darrai espainolak, moroak edo bisigodoak diren etsa-ien aurka. Baina, Arana Goiri edo J. A. Agirrek (orain arte egon den lehendakari kontemporaneo bakarra, leialtasunarekin eta benetako bote-rearekin) inoiz ez zuten pent-satuko, beraien hurrengoak itsu jarraituko zutela erresis-tentzia abertzaleari aurre eginez. Nahiko argiak izan ziren Arana Goiriren hitzak, esan zuenean galduta egongo zirela, egunen batean otordu politiko bat ospatzeko, espainiar borrokoekin mahai berdinean esertzen baziren. Gaur egun euskal abertzale guztien lotsatarako gertatzen dena.

Aritza, Zumalakarregi, Arana, Agirre, Txikia, Etxebarrietaren izenean, gaur egun beraiek hasitakoa jarraitzen eta aurrera-tzen du-tenentzat errespetua eskatuaz bukatu nahi nuke.

Izuri (Ordizia)

LAZKAO GARAJEA
RENAULT
AGENTZIA
Senpere Industrialdea
☎ 882442-888901
Faxa: 888901
LAZKAO

LEGOA
Senpere Merkatal Gunea
Tfnoa eta faxa: 16 19 90 BEASAIN

Egur laminatuzko leihoak
P. V. C. ● Aluminio ● Poliuretano
Ateak ● Pertsiak ● Gortinak
Parket flotantea

Karlos I Etorbidea, 2 - behea
☎ 46 22 66 Faxa: 46 22 24 DONOSTIA

TXANDAKA

Samina

Amorrurik sentitzeko betarik ez zidan eman. Samina, samin handia besterik ez nuen nabaritu gertatutakoaren berri jakin nuenean. Urtetan nire hezkuntzaren arduradun izan ziren hainbat eta hainbat irakaslek --estimu handian nituen batzuk, beste batzuk ez hainbestekoan--, auzo-herri dugun Azpeitian kostata lortutako bake eta akordioari oztipoa jarri; eurena konpondu ezin eta kanpoan liskarra sortzen hasi. Zertarako? Euren probetxurako nonbait, funtzionario izatea gure gizarteko maukarik gozoena bihurtu baita.

Barka nazate hain pobre ageri badira nire erretratuan, baina kasu bakan batzuetan izan ezik, ezin diet sinetsi eskola publikoan fedea dutelako, aldekatasun hutsez jokatzeko ari direnik. Ni neu, behin baino gehiagotan izan nintzen garai batean Euskal Eskola Publikoaren aldeko manifestaldietan, guraso eta irakasle elkarteek, oposizio alderdi abertzaleek, sindikatuak... egiten zuten bat deialdi haiekin. Protesta haietan ez nituen ikusi. Baina, "txin-txin, funtzionario izatearen hotsa..."

Nolanahi ere, ez diot ukatuko inori bere lanpostua are eta seguruagoa egiteko borrokatzeko eskubidea. Zilegi dute, noski. Baina legezko al da horren truke ia 600 umeren ikastetxea eta beste 30en bat irakaslearen lana zalantzan jartzea? Gainera, neurri hori hartu dutenek gehiengoaz, demokraziaz, bakeaz eta tolerantziaz hitz egiten dute ahoa bete-bete. Demokrazia ez al da bada, gutxiengoaren errespetuan oinarritzen? Gehiengoaren tirania litzateke osterantzean. Ez nuke nahi, ordea, gatazka horretan parean dituztenek joko berari segitzea: hots, Azpeitia, Azkoitia eta Zestoako publikazioak auzibidera eramatea. Ez al da duintasun galera bera?

Idurre Eskisabel Larrañaga



Zer egingo zenuke Aralarko otsoarekin?



Martin Garmendia


64 urte, erretiraturua
zaldibitarra

Guk ez dugu ezagutu, baina bildurra ematen du. Harrapatu, bildu eta parkeren batera eramango nituzke. Hil ez. Artzainak ezin du gau osoan otsoaren beldur egon, hurrengo egunean lan egin behar du.

Martin Nazabal

36 urte, arotza
zaldibitarra

Bertan utziko nituzke. Guk adinako edo gehiagoko eskubidea dute. Dirutan galtzen dela esaten dute, baina obra txotxo askotan diru gehiago joaten da.



Antonio Diaz

21 urte, langabetua
zaldibitarra

Utzi egingo nituzke, baina kontrol pisika batekin, neurriak hartuta. Goardek zaindu beharko lituzkete otsoak.

UDA IKASTAROAK

Kanpo irteerak egiteko aukera, Goierrri ezagutuz eta euskaraz biziz



IKASTAROAK		MATRIKULA EPEA	MAILAK	ORDUTEGIA
3 ASTEKOA Uztailaren 1etik 19ra	4 ASTEKOA Ekainaren 24tik uztailaren 19ra	Ekainaren 21era arte	Euskalduntzea Alfabetatzea EGA	3 ordu: 10-1 4 ordu: 9-1 5 ordu: 8,30-2

INFORMAZIO GEHIAGO

ORDIZIA: Santa Ana Ikastetxea ☎ 88 91 74

BEASAIN: Kale Nagusia, 5 - 3. ☎ 88 93 40

Udalak ikasleei matrikula subentzionatuko die.

URBITARTE sagardotegia



☎ 18 01 19

Ergoiena Auzoa
ATAUN

ZINEA



BEASAIN

‘Copycat’ Ostirala 7: 22:15; larunbata 8: 19:30 - 22:15; igandea 9: - 17:00 - 19:30 - 22:15; astelehena 10: 19:30 - 22:15.

ORDIZIA:

‘Jaula de grillos’ Ostirala 7: 22:15; larunbata 8: 19:30 - 22:15; igandea 9: - 19:30 - 22:15; astelehena 10: 19:30.

‘Muerte subita’ Igandea 9: 16:45.



‘12 monos’ Ostirala 14: 22:15; larunbata 15: 19:30 - 22:15; igandea 16: - 19:30 - 22:15; astelehena 17: 19:30.

‘Liberak a Willy 2’ Igandea 16: 16:45.

ANTZERKIA

ORDIZIA:

Ekainak 8, Puppenherts taldearen ‘Piskueetes’ kafe-antzerkia, Barrenan, 22:30ean.

BERTSOAK

ARRIARAN:

Ekainak 15, A. Agirre, I. Elortza eta I. Zubeldia, Intxaurren elkarteak, 20:30ean.

DANTZA

BEASAIN:

Ekainaren 9an, Kontxiren Balet Eskolako haurren emanaldia Usurbe Antzokian, 11:00etan.

MUSIKA

ITSASONDO:

Ekainak 15, Anje Duhalde, Errota Pilotalekuan, 22:30ean. Sarrera 500 pezeta.

ORDIZIA:

Ekainak 9, Beti Argi Musika Banda, Plaza Nagusian, 13:00etan.

Ekainak 15, Musika Eskolako Kurtso Amaierako jaialdia, 11:00etan, Herri Antzokian.

Ekainak 15, Oroith abesbatzaren musika saioa. 20:00etan, Eliz Parrokian.

ZALDIBIA:

Ekainak 14, Aitzol eta Lizardiren omenez, herriar batzuk kanta, poesia saioa eskainiko dute. Ondoren, Ozenki Otxoteak kanta saioa eskainiko du. Antzokian, 22:00etan.

BESTELAKOAK

ZALDIBIA:


Ekainaren 14an, Itziar Zubizarreta ipuin kontalaria, Kultur Etxeko Liburutegian, 17:00etan.

IKUSTENTZUTEKOAK

BEASAIN:

Ekainak 7, Iratiri buruzko diapositiba-bildumaren Josu Eizagirrenen eskutik, Aizkorri Mendizale elkarteak, 20:00etan.

Ekainaren 14an, ‘Baztan Bidasoa’ri buruzko diapositibak Gema Arrugaetak, Aizkorri Mendizale Elkarteak, 20:00etan.



ITSASONDO:

Ekainaren 13an, Joxe Ramon Agirre ‘Marron’en eskutik, ‘Afrika’ diapositibak emanaldia, Erretore Etxean, 20:00etan.

ERAKUSKETAK

BEASAIN

Ekainaren 7tik 16ra, marrazki, pintura, zeramik eta esmaltaketako udaltailerretan egindako lanen erakusketa, Usurbe Antzokiko Erakusketa Aretoa.

ORDIZIA:

Ekainaren 15etik 28ra arte, Jose Antonio Roman Rojoren pintura erakusketa, Barrenan.

IKASTAROAK

BEASAIN:

Ekainaren 8an hasita, Makrame ikastaroa, BGAK antolatuta.



HIZKUNTZAK UDAN

Munduko hizkuntza zentruen erakunde handiena

IKASTARO TRINKOAK

INGELESA eta ALEMANIERA

Egunean bi ordu, goiz eta arratsaldean
uztaila, abuztua eta iraila

ORDIZIA
Elkano, 8
☎ 88 11 37

BEASAIN
JM Iturrioz, 11
☎ 16 05 72

ZUMARRAGA
Iparragirre, 8
☎ 72 22 23

Ekainaren 15ean, Niki tindaketaren ikastaroa, BGAK antolatuta.

MENDI IRTEERAK

Beasango mendizaleak:

Ekainak 9, Baltzolako kobazulora irteera.

Ekainak 16, Andatzara.

Beasaingo erretiratuak:

Ekainak 15, Beasain-Onraita-Iturrieta-Onraita-Beasain. Irteera Barrendaindik, 8etan.

Ordiziako mendizaleak:

Ekainak 9, Santa Ageda-Anboto-Urkiola.

Ekainak 16, Larraitz-Pardarri-San Migel.

Idiazabalgo mendizaleak:

Ekainak 9, Zestoa-Izarraitz.



ATAUNGO ARGAZKI LEHIAKETA

Ataun postalen bidez promozionatzeko argazki lehiaketa antolatu du Udalak. Ataunen bil daitezkeen gai berezienak edo eta erakargarrienak erakustea da asmoa. Argazki irabazle eta hautatutako beste batzuekin postalak egingo dira. Gai posibleak hauek dira: antropologia, mitologia, Joxemiel Barandiaran, baserria, paisaia, euskal giroa, Aralar, artzaintza, kaleak eta erakuntza historikoak. Bakoitzak gutxienez 3 argazki eta gehienez 9 aurkeztu beharko ditu. Koloretan nahiz zuri beltzean. 18x24 cm dituen argazkia 24x32 cm dituen kartulina batean erantsita. Sariak: 60.000 pezeta, 25.000 eta 15.000 pezeta. Abenduaren 1a baino lehenago aurkeztu behar dira.

DEBALDEKO IRAGARKIAK

Salerosketak:

☐ Renault 18, diesela salgai. Zerrail zentralizatua, elebaluna elektrikoak, direkzio lagundua eta extrak. 80 19 93.

☐ Kanping karroa salgai. Arantxa. 18 04 06.

Etxebizitzak:

☐ Pisua salgai Ordizian. Kasko historikoan dago kokatuta, Kale Nagusira eta Goen kalera ematen du. Erreformatuta. 88 06 34

☐ Beasainen pisua salgai. Esteban Lasa kalean. Deitu: 80 12 82 edo 88 16 20 telefonoetara.

Bestelakoak:

☐ Lau katakuma, sei astekoak, eman edo oparitzen dira. Eguerditik aurrera deitu. 180394.

☐ Martxoaren 8an eraztuna galdu eta oraindik arras-torik gabe bazaude, deitu 16 02 82 telefonora.

☐ Beasainen belarritako bat galdu zen maiatzaren 4an. Urrezkoa eta esmeralda batekin. 76 33 26. Arratsalde edo gauz deitu.



GOARDIAKO FARMAZIAK

7-8-9: Cuesta.

10: Arriola.

11: Urbizu.

12: Atorrasagasti.

13: Azpilikueta.

14: Jauregi.

15-16-17: Laurnaga.

18: Cuesta.

19: Arriola.

20: Urbizu.

LOINATZ

Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak

Nagusia, 27 ☎ 882007 BEASAIN



OSTASUN

BELAR ETA DIETETIKA DENDA
NATUROPATA

Eska ezazu eguna eta ordua

Goierri 10 ☎ 88 61 14 ORDIZIA

KONTSULTORIO MEDIKU-KIRURGIKOA

Goierritarrentzako mediku zerbitzu espezializatuak

Ordua eskatzeko tfnoak: 88 57 50 - 88 57 54

Nafarroa Etorbidea, 25 - 2.

BEASAIN

IKASTEK AKADEMIA

KALITATEA eta PROFESIONALITASUNA

96KO UDA

✓ UDA IKASTAROAK

- ☐ Kurtsoan utzitako gaien erreku-peraketa
- ☐ Maila eta arlo guztiak
- ☐ Banakako atentzioa

✓ UNIBERTSITARIOA

- ☐ Kalkulua eta kontabilitatea
- ☐ Estatistika
- ☐ Matematika

✓ HIZKUNTZAK

- ☐ Ikastaro trinkoak
- ☐ Ingelesa, Frantsesa, Alemaniera
- ☐ Irakasle-go trebatua

☎ 16 01 20

Joan Iturrlalde, 5 BEASAIN



Dionisio Amundarain

*“Erakundeak,
askotan,
indibiduoengandik
oso urrun dauden
zera dira;
solidaritza nahi
bada, gizarte
aktiboa behar da.
Ikastolaren
hasierako eta
geroko (kasu
askotan) filosofia
horixe izaki:
ikastolan
gurasoen, ikasleen,
irakasleen eta
herritar guztien
partaidetza”*

Azpeitiko eta Beasain-
go ikastolen auzia
dela-eta, manifesta-
zio handia egin zen Beasain-
nen ekainaren leian. Mani-
festazioaren ikurrak bi adie-
razpide nagusi, elkarren osa-
garri, izan zituen: adierazpi-
de negatiboa eta adierazpide
positiboa, EZ deia eta BAI
deia.

EZ deia. Azpeitiko bi al-
derdiek, publikaziozaleek
eta ikastolazaleek, lortutako
akordioaren kontra, Beasain-
go Alkartasuna Lizeoko ira-
kasle askok eta beste zenbait
jendek jarritako errekurtsua
zuen auzigai manifestazioak.
Beasaindik Azpeitikoaren kon-
tra errekurtsua jarri dutenen
zerrenda osoa banatu zen
hasteko, “Ikastolaren etsai-
ak” izenburupean. Errekurtsua
jarri zutenen izenak aire-
ratu ziren hurrena pankarta
banakoetan; Beasain ingu-
ruan ezagunak diren izen-
deitura asko ikusi ahal izan
ziren horrela, bai manifesta-
rien sailetik, bai balkoietatik.
Errekurtsua jarri ez zuena
ere lotsarazteko modukoa!
Ikusizko alderdiari entzutez-
koak jarraitu zion: “Ikastola
bai, bai; txantaiarik ez, ez”;
mila bider errepikatu zen
oihu biribil-borobila. Modu
honetsutako eskari-deia ere
entzun ahal izan zen: “Atera
itzazue zeuen haurrak zentru
horretatik, jende horren
(errekurtsu-sinatzaileen) es-
kuetan ez daude egoki eta”.

BAI deia. “Bultza, bultza
ikastola, eeeup! Gora, gora

Ikastolen elkartasuna

Ikastola”. Besté bi mila bider
entzun zen oihu soinuatsu,
dirdiratsu eta ozena. Baziru-
dien, ikastolaren hasi berri
hartako arnasa ari zela arna-
saz betetzen bidean hezur le-
hor gelditutako asko. Baziru-
dien, bidean, hasiera hartatik
gaur arte gertatutako jendea-
ren erreketa jende berria-
rentzat lur ondua utzi zuela.
Eta, besteak beste, bihotz be-
rotiko Pelloren azken garra-
sia, danbarradatsu txalotua:
“Gora gu eta gutarrak”; inor
azpiratzeko asmorik gabeko
oihua, baina nork berea de-
fenditzeko gogo bizi eta
gartsuaren adierazpena.

BAI deia. Guztien gain,
ikastolaren eta euskararen
inguruan bildutako jendetza.
Eta, nagusiki, bi ikastolaren
elkarketa eta topaketa, “etsa-
ien” kontra elkar babestu eta
defenditzeko. Gaur bi ikasto-
lak. Bihar lauk, hamarrek,
hogeik... gogoan hartu beha-
rreko ikaskaia.

EZ/BAI deia. Ikastolaren
hasierako ikurraren gogora-
tzea: zeuk egin dezakezuna,
ez utz bestek egin dezan; be-
hetik gora egin daitekeena,
ez espero goitik behera egin
dezaten; heziketa nahi dene-
an, ez itxaron dirua trukatzek-
ak egin dezan; inori gizale-
gea itsatsi nahi diozunean,

baztertu ingurutik izurratu
hutsagatik izurratu nahi
oro...

BAI dei trinko borobila.
Ikastolaren hasierako arnasa.
Garaiak aldatu arren, gaur
ere bere esanahia bizi-bizi
duena. Oraingo hau, ez Bea-
saingo manifestariak ahotik,
urte askotan Europar Batasu-
na-n buru izan den Jacques
Delors-en lumatik baizik
(adierazpenak, beren testu-
guruan ulertzeko, astekari
katoliko bati egindakoak di-
rela esan behar da): “(...) De-
mokraziaren krisi morala,
hein batean, espiritualitatea
ahultzetik dator (...) Katoliko
guztiak poztan dira ongizate-
aren (...) Estatuak egindako
aurrerapen sozialez. Baina,
hori indibiduoengandik
urrundutako erakundearen bi-
dez egin ohi da, eta horrek,
ondorioz, bakoitzak beharko
lukeen eginbeharraren zen-
tzua ahuldu egiten du. Beraz,
(...) solidaritza eta justizia
sozial handiagoa lortzeko,
gizarte aktiboa behar da
(...)”. Horrek, haurren hezi-
ketari, euskararen sustaketa-
ri, ikastolaren bizitasunari ...
aplikatuz, haxe lekarkigu-
ke: erakundeak, askotan, in-
dibiduoengandik oso urrun
dauden zera dira; solidaritza
nahi bada, gizarte aktiboa
behar da. Ikastolaren hasie-
rako eta geroko (kasu asko-
tan) filosofia horixe izaki:
ikastolan gurasoen, ikasleen,
irakasleen eta herritar guz-
tien partaidetza.



The Clover School of Languages

Domingo Unanue Pl., 5

☎ 16 20 16
ORDIZIA

**UDAKO IKASTARO INTENTSIBOAK
ESKEINTZEN DITUGU:**
INGELES eta FRANTSESA
Egunero ordu bat edo bi ordu

1. txanda: ekainaren 24tik - uztailaren 19ra
2. txanda: abuztuaren 1etik - abuztuaren 30era
Izen emateko epea ekainaren 19rarte

ERREZETA



Mari Karmen Artano
Mandioa taberna
Zerain

TXIPIROIAK

Osagaiak:txipiroiak, tinta poltsak, piper berdeak, baratzuria, tipula, olioia eta gatza.

Olioia berotzen jarri. Baratzuri burua erditik ebaki eta oliotara bota. Gorritzen denean tipula dexente bota. Piper berde pare bat ere bai. Dena ondo gorritu su geldian. Ondoren tinta poltsak bota. Kiloko 2-3 poltsa. Ordu erdiz eduki. Jarraian, ura bota. Beste ordu erdiz ondo egosi. Guztia batitu edo irabiatu eta txinoan pasatu.

Bestalde, txipiroiak bete, oliotan pasatu gorritu arte. Saltsa bota, gatza ere bai, eta 30-45 minututan poliki-poliki jarri, saltsa loditu dadin.



Joxe Antonio Lasa
Kardiologoa

Aurreko alean gaixotasun kardiobaskularrak prebenitzaeren beharra azpimarratu zen. Prebentziorako arrisku faktoreak kontutan hartzea beharrezkoa da.

70.eko hamarkadan egin-dako zenbait ikerketa anatomo patologikoen arabera, arrisku faktoreak murriztu zituzten taldeetan Arterioesklerosiaren gutxitzea eman zen. Ondorio hauek atera ziren ikerketan:

- Hipertentsio arterialari dagokionean, tentsioaren batz bestekoaren jaitsiera lortu zen eta ondorioz Hipertentsioaren ondorio larriak desagertzea.
- Tabakoari dago-

Gaixotasun kardiobaskularrak eta arrisku faktoreak (II)

kionean, gertatzen diren istripu koronarioen % 25aren eragile da.

- Ohitura dietetikoak aldatzearen ondorioz, kolesterola 5-10 mgr/dezilitrora jaitsiz gero, % 5-10ean jaitsi zen Kardiopatia Iskemiaren eragina.

- Odolean 150 mg/dezilitroko Triglicerido baino gehiago izatea arrisku faktoretzat hartzen da, nahiz eta honen inguruko ikerketen emaitzak ez diren beti berdinak.

- Diabetikoen artean he-

riotz tasa izugarria ematen da. Honen arrazoia diabetikoek beste arrisku faktore batzuekin duten zerikusia da.

- Inaktibitate fisikoari dagokionean, garbi gelditu da ariketa fisikoek eragin positiboa dutela grasa eta glukosaren metabolismoan. Eragin hauetan daude HDL-kolesterolaren (edo kolesterol ona) gehitzea bai eta gaitasun fibrinolitikoaren ere, honela tronboaren sorrera galerez.

Egiten ari diren ikerketen arabera, ariketa fisikoak ez du bihotzeko infartoaren eragina edo tentsio arteriala gutxitzen. Baina beste arrisku faktoreak gutxitzen laguntzen du. Hau da, kirola egiten duen pertsonak bere dieta zainduko du, pisua kontrolatuko du, tabakoa baztertuko du eta abar.



Kirola egiteak, gaixotasun kardiobaskularrak eragiten dituen arrisku faktoreak gutxitzen laguntzen du.



MUJKA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19
☎ 88 11 94
ORDIZIA

VOLVO
TOYOTA



ŠKODA
Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 88 17 00 - 88 17 04
BEASAIN

JOSUNE
ESTETIKA ZENTRUA



✿ Tratamendu bereziak:
aknea, liftinga,
estimulazioa eta makilaje
iraunkorra.

✿ Kontsulta medikua:
gizentasuna, barizeak,
liposukzioa eta zirujia
estetikoa

Zure ezkontza egunean
diztiratsu egon zaitezten
tratamendu guztiak ditugu.

J. M. Barandiaran plaza, 3
☎ 88 28 88
ORDIZIA



Juan Mari Jauregi

Orain arteko Gobernadore Zibil kargutik kendu egin dute Juan Mari Jauregi legorretarra.

Auto erreketak

Ordiziako ertzain baten kotea, Seat Ibiza beltza, erre zuten maiatzaren azken asteburuan. "Ertzaintzaren jarreraren aurkako" ekintza zela errebindikatu zuten 'Egin' egunkarira egindako telefono dei batean.

Eskola txikiak

Legorreta eta Zaldibiko Herri Eskolek borrokan jarraitzen dute. Maiatzaren 25ean, Zaldibitik Legorretaroinoko auto-karabana egin zuten. 80 bat autok hartu zuten parte. Lau traktore aurretik jarri eta N-1 errepeidea erabat blokeatu zuten. Ordu bete behar izan zuten Legorretaraino iristeko. Ondoren, legorretarrak karabanan sartu, eta errepeide zaharretik, herriz herriz ibili ziren. Maiatzaren 31n, aldiz, Udaletxeetan itxialdiak egin zituzten.



Azpeitiako ikastolakoak protestan

Ekainaren lehen manifestazioa egin zuten Beasainen, Azpeitiko eta Beasaingo ikastolen aldekoek. Mobilizazio honen arrazoiak, Beasaingo publikazioaren aldekoek Azpeitiako ikastola berriaren eraikitzeak akordioa errekurritu egin dutela. Manifestazioan, errekurtsioa jarri duten irakasle eta gurasoen izenak zeramaten pankartak eraman zituzten.

Era berean, maiatzaren 29an Azpeitiko Ikastolako langileek konzentrazioa egin zuten, "Beasaingo Ikastolako guraso eta irakasle talde baten jokaera argitu eta salatu nahian". Azpeitiarre irmoki salatu eta gaitzetsi zuten, "batzuren jakabide txantailari eta nazkagarria. Jakina da prozesu luze eta neketsu baten ondorioz, oztopo eta eraso ugari jasanez, iragandako otsailaren 28an gure Ikastolak, eta Hezkuntza Sailak akordioa sinatu zutela, non baimentzen den Azpeitiko Ikastola Ikasberri Koop. Orain, Beasaingo Alkartasuna Ikastolako publikazioaren aldeko guraso eta langile batzuk lehtarazi egin nahi dute hainbat kostatako akordioa, errekurtsioa ezarri aipatutako baimenari eta Ikastolaren erakuntza berriari. Zein arrazoigatik? Ikastolako Federazioari, Hezkuntza Sailari eta guri, txantaia eginez, euren interes pertsonalak gauzatzeagatik. Onar ezina, hezitzaile batzuk, txantaia zikin eta higuin garrian erortzea".

Larunbatean, ekainaren 8an, arazo berdinagatik borrokan ari diren herri guztiek elkarrekin, beste auto-karabana bat egingo dute. Hurrengo astean, Lakua blokeatzeako asmoa dute bertara egingo dituzten tele-

fono deien bidez.

Gogoratu, bi eskola txiki hauek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren lehen zikloa, 12-14 urte bitarterakoa, herrian bertan egitea aldarrikatzen dutela.

Ismael Sanchez

Maiatzaren 21etik etxetik falta zen Ismael Sanchez ordiziarraren gorpua Zaldibiko Arkaka presa inguruan aurkitu zuen joan zen asteburuan. Amildegia txiki batean, sasi artean aurkitu zuten. 66 urte zituen.



Otsoa

Itxura guztien arabera, otsoa da Aralarren ardiak erasotzen dituen animalia. Gorotzak eta hildako ardi batean ileak aurkitu dituzte adituek. Diputazioak goardek hasi zuten gaueko zainketa lanak, bertan behera gelditu dira behin behineko, otsoak azkenaldian ez baitu beste erasorik egin. Inigo Mendiola Diputazioak arduradunak adierazi digunez, "mugitu egin dela pentsatzen dugu, hala ere berriz itzuliko dela ia ziur gaude". Diputazioaren asmoa, otsoa harrapatzea da.

Amezketan aldean bi mixel hilda aurkitu zituzten joan zen astean. Inigo Mendiola esanetan, ordea, "ez otsoarekin zerikusirik. Haiek hilda azaldu, eta gero txakurren batek hozka egin zien".

JAUREGI

TOLDOAK s/l

Tfnoak.: 88 02 43 - 88 01 33

BEASAIN



96ko UDA IKASTAROA

Uztailaren 1etik 30era

- Maila guztiak, euskalduntze, alfabetatze eta EGA.
- 5 ordu egunean, goizez.
- Bekatze sistema eta dirulaguntzak. Galde ezazu.
- 16 urtez gorakoentzat.

Matrikulaldia ekainaren 3tik 20ra.

San Martin Pl, Kultur Etxea ☎ 889094 BEASAIN



Brusselara martxa

Goierritik 4 autobus joan ziren, ezker abertzaleak antolatuta Euskal Herriaren askatasuna eskatuz, Europako bihotza den Brusselara. Ekitaldi politikoan euskal presoak presente egon ziren, argazkian dira Ordiziako zenbait presoren argazkiak eta familiartekoak.

Gerriko sariak

VII. Gerriko Ikerlan Sariketako emaitzak eman dira. Igo saria Jose Felix Amundaraini (Zegama 1755-Mutiloa 1825) buruzko lanak irabazi du. Egileak, Antton Idiakez, Pello J. Aranburu, Marian Bidegain eta Iñaki Rezola. Bigarren saria, Jose Migel Azurmen-di beasaindar presoak jaso duko du, 'Zegamako euskara' lanarekin. Saribanaketa ekainaren 14an izango da, 20:00etan, Lazkaoko Udaletxean.

Eskolarteko bertso txapelketa

Ez zuten zorte handiegirik izan gure bertsolariek maiatzaren 24an jokatu zen finalean. Bapatekoan, 14 urte bitartekoetan ez zen Goierriren ordezkariarik izan. 18 urte bitartekoetan bi genituen: Haritz Zeberio eta Ekaitz Goikoetxea beasaindarra.

Bertsopaperetan, txikien mailan, Ataungo Aitzol Munduate izan zen irabazle.

Itoitz eta AHT

Itoizko urtegia eta Abiadura Handiko Trenaren aurkako asteburua izango da. Ostiralak 7, 6etan, AHT eta Itoiz urtegiari buruzko bideoa izango da Lazkaoko Udaletxeko pleno aretoan. Larunbatean Iruñean egingo den manifestaziora joango dira eta eta igandean, Aralartik bueltatxo bat emango dute. Autobusa 8.45etan aterako da Lazkaoko plazatik.

Mikel Laso

Legorretarra albiste da egunotan. Real Madrid taldeari agur esango omen dio, baina momentuz ez du argitu, zein taldetan jokatu duen. Berriz ere Errealeko kamiseta janzteko proposamena luzatu die legorretarrari.

Martin Alustiza

Eskuz binakako txapelketan Berna atzelariarekin batera jokatu du segurarrak.

1. SARIA



Sasieta sariak banatu dira

Kartel lehiaketa eta Berzikli saria izan dira Sasieta Mankomunitateak aurtengorako antolatu dituen lehiaketak. Kartelei dagokionean, 62 lan aurkeztu dira. Kartelen kalitatea, originaltasuna nabarmendu nahi izan ditu Sasietak. 2 sari

eman dira. Legorretako Ugarte Herriko Eskolako 7. mailako ikasleek jaso dute lehenengoa. Beasaingo Alkartasuna Lizeoko 7. mailako ikasleentzat izan zen akzesit berezia.

Berzikli saria aurtun lehenengoz antolatu da. Ingurugiro heziketa programa eta ekintzak gehien landu dituen ikastetxea eskertu eta nabarmendu nahi da Berziklirekin. Urretxuko Lourdesko Ama Ikastolarentzat izan da.



ESKORIATZAKO MAGISTERIO ESKOLA

Magisterio Eskola honek zera jakinarazten du:

1996-97 ikasturterako aurreiskripzio-epea zabalik dagoela.

Heziketa arloan espezialitate erreglatuak ez ezik hainbat eginkizun bete ahal izateko oinarritzko formakuntza eskeintzen du karrera honek: hala eskoletan, nola euskalduntze munduan, iharduera soziokulturaletan.

INFORMAZIOA: IRAKASLE ESKOLA
Tfnoa.: 943 / 71 41 57
20540 ESKORIATZA



GENERALI Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
☎ 88 87 02
BEASAIN

Joxean Mujika beasaindarra arbasoen aztarnen bila

Orain dela 5.500-3.000 urteko gure arbasoak nolakoak ziren, zer egiten zuten, non eta nola bizi ziren...

horixe da Joxean Mujikak aztertzen duena. Megalitismoa eta bereziki trikuharriak aztertuz atera ditu ondorioak. Historia ikasi eta Historiaurrean espezializatu zen beasaindarra. Beste ikerketa lerro bat ere landu izan du, gizakiak historiaurrean (duela 100.000 eta 5.000 urte bitartean), landu zituen hezurrezko eta adarkizko tresnak.

Trikuharri kopuruari dago-kioenean, Goierri Gipuzkoan dagoen gune garrantzi-tsunetarikoa da. Aralar aldekoak, Nafarroako mugan daudenak, Idiazabal, Zegama, Aizkorri aldean, Beasainen... "Kopuru aldetik garrantzitsua da gune hau, baina ikertzeko asko falta da", adierazi digu Joxean Mujikak.

Orain artean Goierriin bi lan mota egin dituzte. "Batez ere trikuharrien erabilera landu dugu. Noizkoak diren, zenbat denboran zehar erabili diren, aldaketarik badagoen erritualetan, arkitekturaren diferentziarik badagoen, zein landaretza mota zegoen... Bestetik, jende honen bizilekuak aurkitzen ere saiatzen gara, baina hauen eraikuntzak oso

xumeak zirenez, oso zaila da hauek topatzea".

Aztarna zaharrenak Ataungo Usategikoak dira

Garai hartako talde haiek batez ere artzainak zirela pentsa daitekeenez, ezin omen liteke izugarrizko aurkikuntzarik espero. "Baina material arkeologikoak oso bitxiak ez izan arren, informazio asko eskaintzen digute eguneroko bizimoduaz. Harrizko aizkorak, gezi puntak, koilarealeak, lurrontzi zatiren batzuk, harrizko tresneria lantzearen ondorioz utzitako hondakinak, jan-hondarrak (hezur zatiak)..."



Igartza mendebaldeko trikuharria. Ataun eta Urdiain mugan dago. Iazko udan industu zuten.

Orain duela 4.000 bat urte hasiko ziren metal piska bat erabiltzen, beti kanti-tate txikietan. Haseran metal natiboa (adibidez, kobre edo urre pipitak) mailukatuz landuko dituzte eurek eman nahi zioten forma (koilare ale, orratz...) lortu arte. Gerroago, Brontze-Aroan (K.a. 1.800etik aurrera), zerami-kan aplikatzen zuten teknologia aprobeztatuz (labea), metala galdatzen hasiko dira. Aztarnategietako metalaren urritasuna normala da kontutuan hartzen badugu hauentzat errezagoa izango zela tresnak berriz urtzea (berziklatzea) meategietara lehengai berri bila joatea baino. Metalak gizarte mailaketa sortuko du.

Lehen goierritarrek

Goierriin gizakia duela 150-100 mila urte kokatu zela ia ziur esan daiteke. "Kontutuan izanda Arrasaten agertu direla duela 150-100 mila urteko emakume baten besahezurra, animali hezurrrak (bisonte, zaldi, orein...) eta harrizko tresnak, eta Urbanen ere bai, pentsatzen da Goierriin ere egongo direla". Nahiz eta momentu honetan ezagutzen diren aztarna zaharrenak Usategikoak (Ataun) izan. Orain dela 27-22 mila urtekoak.

Dena den, duela 40-12 mila urte izan ziren izozta-roetan nahiko hutsik (urte sasoi epeletan egongo ziren) geldituko zen Goierri, baina badaude garai hartako aztarnak, Usategin bertan.



Kale Nagusia, 36

☎ 16 15 46 - 47

BEASAIN

Urola Bidaiak

Portugal	8 egun	31.700 pzta.	Maroko.	10 egun	39.300 pzta.
Andaluzia	8 egun	36.500 pzta.	Egipto	15 egun.	99.800 pzta.
Paris-Holanda	9 egun	43.900 pzta.	Thailandia	14 egun	183.600 pzta.
Paris-Londres	9 egun	57.900 pzta.	New York-Orlando	10 egun	136.500 pzta.
Suiza-Tirol-Baviera	9 egun	65 800 pzta.	Costa Rica	16 egun	285.600 pzta.

Toki epelagoen bila, barne-aldea eta toki garaia utzi, eta itsasertzera joango ziren gure arbasoak. Garai hartan itsasertza 60 metro sakonago eta 6 bat kilometro urrutirago egongo zen. Batetik bestera ibiliko ziren. Gaurkotasan klimatikora iritsi zenean, orain 11.500 urte, orduantxe, Goierriin, urte osoan bizi-tzen hasiko zirela uste da.

Margoak haitzuloetan egiten diren garaietako aztarnarik ez dago Goierriin, Usategi ezik. Ez dago aztarnategirik, eta are gutxiago saintutegirik. Irudiak margotuak edo grabatuak dituen haitzuloari deitzen zaio saintutegia. "Zenbat eta denbora gehiago bizi toki batean, orduan eta posibilitate gehiago saintutegia egoteko".

Klima epeltzean, beraz, Goierri toki egokiagoa izango zen bizitzeko. Horren froga dugu Ataungo Pikanditan aurkitutako arrankazia edo arpoia.

Animaliak eta landaretza

Klima epeltzearen ondorioz, basoak ugaritzen hasiko dira eta aldaketa garrantzi-tsuak izango dira animaliei dagokienean. Klima epel-tzean animalia batzuk iparraldera alde egiten dute; ipar erbiak, ipar axeriak... edo beste batzuk galdu, de-



Aralarko trikuharri batean aurkitutako material arkeologikoa: suharritzko gezi puntak, kobrezko eta hezurrezko eztenak, koilare ale bat, kuartzozko kuttunak.

sagertu egingo dira, eurentzat ez baita klimarik egokiena. Leize-hartzak, hienak, panterak... Orain dela 11.800 urte, ugariak ziren animaliak, oreinak, orkatzak, basurdeak, sarrioak, basahuntzak, basabehiak... izango dira.

Artzaintza ezagutzen hastean, ardiak eta ahuntzak ekarriko ziren. Txakurra lehenagotik ezagutzen zuten, ehiz lagun bezala. Behiak eta txerriak baliteke kanpotik ekartzea, edo beste leku batzuetan teknikak ikusi, ikasi eta hemen aplikatzea.

Orain dela 6.000-5.500 bat urte, helduko dira Ekialde Hurbilean sorlekua duten aurrerapen batzuk. Horien artean nekazaritza eta abelazkuntza. Gizakiaren elikadurarako garrantzizkoak ziren landare-elikagaiak ere, bertatik ekarritakoak dira.

Garagarra, garia, dilista, linnoa... Astoa, oiloa... beranduago iritsi ziren, k.a. V. mendean. XVI. mendetik aurrera, noski, Amerikatik etorriko ziren beste hainbat elikagai: tomatea, indabak...

Bizilekua eta bizimodua

Txaboletan, aire zabalean biziko dira. Neurri handi-enean, artzainak ziren, baina nekazaritza ere ezagutzen zuten.

Fruitu bilketa eta ehiza ere egiten zuten. Abelazkuntza nekazaritza baino gehiago landuko zuten, ikerketa palinologikoen arabera. Oso kasu gutxitan aurkitu dira zereal edo zitu-lorautsak, (Zorroztarriko trikuharrian bakarrik).

Itxura guztien arabera, lurralde ezberdinak apro-

betxatuko dituzte. Altueraren eta lur emankortasunaren arabera, gehiago edo gutxiago mugituko dira. Aralar edo Aizkorriin dauden trikuharrien inguruan bizi zirenak, urte sasoi batean bakarrik biziko ziren. Bajuago zeudenak, gutxiago mugituko ziren.

Trikuharriak

Aztarna argienak eta ugariak trikuharriak eraikitzen direnekoak dira, orduan biztanle hazkunde bat ezagutuko baitzen. Aurrez ez dago arkitektura handirik. Trikuharria gizakiak egindako egitura da. Harri garraio handia eskatzen du. Bi zati ditu: ganbara, jendea lurperatzeko; eta inguruan harri pila egitura babesteko.

Ehorzketak bi motakoak ziren: haitzuloetan eta trikuharrietan. Aurretik bana-ka, han hemenka lurperatzen zituzten. Jende asko lurperatzen dute trikuharrietan 2 mila bat urtetan, hauek hilerriak izango dira. Orain dela 5.300 bat urte hasi ziren trikuharriak egiten. Haitzuloetan lehenagotik lurperatzen zituzten. Kasu batzuetan, beranduago, Burdin aroan --k.a. azken milurtean-- erretako hildakoak ere azaldu ziren Praalatan (Ataun eta Idiazabal mugan). Europa erdialdetik zabaldutako ohitura zen errausteara.

Loinaz Agirre

IPARRAGIRRE ANAIK, C. B.

KARROZATEGIA

HIRIBARREN, 24
☎ 88 95 83

LAZKAO



Inprimategia

BUZCI

Nafarroa Etorbidea, 9

☎ 88 94 82

BEASAIN

ALTSASU ETA EZPELETARN EGIN ONDOREN BADATOR MUGAZGAINDIKO AZOKA

Euskal Herri osoko produktuak bilduko dira Ordizian

Eusko Jaurleri-tzaren ekimenez, eta Akitania, Nafarroa eta Euskal Autonomia Elkartearen arteko harremanak sendotzearen, sortu zen nekazalekigaien herrialdeko arteko azoka berezia egiteko asmoa. Urriaren 15ean Altsasun eta apirilaren 8an Ezpeletan izan ondoren, orain Ordiziaren txanda da. Euskal Herri osoko produktuak eta saltzaileak bilduko dira bertan.

Ordiziako azokaren historian egun historikoa izango da larunbatekoa. Batetik, nekazal elikagaien herrialde arteko azokaren barruan lehenengo delako aurtan. Bestetik, egun eta orduari dagokionean, larunbat arratsalde izango baita. Aurretik ere larunbatetan egin izan da azoka, baina arratsalde inoiz ere ez. "Asteazken batean egitea pentsatzen zen hasieran, baina Iparraldetik



eta Nafarroatik asteazken batean etortzea nahiko aldrebes etortzen zitzaien. Astebukaera hobeto datorkie. Aurrekoak ere jaiegunetan egin ziren", esan du Jesus Mari Lariz Ordiziako Udaleko zinegotziak. Iaz ere egin zen gaztaren aurkezpeneko azoka berezia larunbatez. "Ondo joan zen, gustura gelditu ginen. Larunbatetan azoka bereziak egin zitezkeela ikusi zen, asteazkenetakoak indartzen saiatuta, noski".

Orduaren kasuan, jendea lo piska bat gehiago egiten uzteagatik era-

baki da arratsalde egitea. "Larunbat goiza jendeak lo egiteko aprobetxatzen du. Orduan jendea azokara 11.30ak aldera hurbiltzen hasten bada, 1.30ak bitartean ez da dena ikusteko denborarik izaten. Egun osokoa eginez gero, hainbat ordu hil egoten dira. Orduan arratsaldean, 4.30etatik 9etara egiteko esperientziaren aldeko apustua egingo dugu. Ikusiko dugu. Jendeak jai izaten du larunbat arratsaldean, denborapasa etortzeko aukera emango diogu", gaineratu du ordiziarrek.

Aurtengorako proiektu bezala sortu bazen ere, hiru herrietako ordezkariak argi daukate azoka berezi honek aurrera jarraitu behar duela. "Helburu nagusia Euskal Herri osoko produktuak biltzea da. Baina ez hori bakarrik. Kirol, kultur... ekintzekin ere gauza bera egin nahi dugu. Esaterako, joan zen igandean Ordizian egin zen Dantzari Txiki Egunean Ezpeletako taldeak parte hartu zuen. Proiektuak sortzen joango dira herrien arteko harremana sendotu nahi baita", adierazi digu Larizek.

Orain artean ondo joan dira Altsasu eta Ezpeletako azokak. Altsasuko urriaren 15ean egin zen eta Ezpeletako apirilaren 8an. Ordiziako ere ondo joango dela pentsatzen dute antolatzaileek. "Jendea etortzea eta eguraldiak laguntzea besterik ez zaigu falta".

OSKARBI
OINETAKOAK



Mota guztietako eta adin guztien-tzako oinetakoak.

KickKers

K. Nagusia, 25
88 19 44 ORDIZIA

EROSKI
KAFETEGIA

gosari - merienda
eguneroko menua

88 27 93 ORDIZIA

GESTORIA BIOK
ASEGUROAK

- * Aholkularitza laborala eta fiskala
- * Jubilazio, bizitza, etxebizitza eta kotxe aseguruak

88 44 00 - 88 12 58
Goierri, 12 ORDIZIA

ZUHAIZKI
Zurgindegi Mekanikoa



-LEIHOAK, ATEAK
ETA ABAR

-ESKAILERAK
NEURRITARA



Beko kale, z/g.
Tel. 88 71 26
Faxa: 16 10 77
ITSASONDO
(Gipuzkoa)

Eskaintza zabala

Lau gunetan banatuko da azoka. Produktu ugari ikusteko aukera izango da. Giroa alaitzeko nola ez, arratsalde osoan txar-rangak, trikitixa... doinuak nagusituko dira herrian zehar. Arratsaldeko 6.30ak aldera, pilota partiduak ere izango dira. Hona hemen jarraian, gu-ne bakoitzean zer egongo den ikusgai.

● Enparantza Nagusia

Asteazkeneroko saltzailak egongo dira, bertako produktuak saltzen. Barazki biologikoen saltzaileren bat ere egongo da.



Zaldiak erakusgai egongo dira Garagartza plazan. Arraza bakoitzaren berezitasunak azalduko ditu albaitari batek.

Postuen dotoretasuna sarrituko da, 20.000, 15.000 eta 10.000 pezetako sarriekin.

Enparantza Nagusiaren inguruan, Gipuzkoa osoko lora saltzailak izango dira euren produkturik onenak erakusten. Hauentzat ere, itxura politena duen postuarentzat 3 sari egongo dira.

● Arboledan

Getariako txakolina dastatzeko aukera izango da. Guztira 14 bat txakolin-gile etorriko dira.

Txistorraren Kofradiaren eskutik, berriz, Sakanako txistorra dastatzeko aukeran izango gara.

● Garagartza plazan

Lehenengo aldiz, ibiltzeko edo "montatzeko" zal-

dien erakusketa izango da. 60 burutik gora ekarriko dituzte. Arraza ezberdinetakoak: arabiarrak, inglesak, espainiarrak, gurutzatuak, hiru odolekoak, anglo-arabiarrak eta sirexak. Albaitari baten eskutik, zaldi arraza bakoitzaren ezaugarriak adieraziko dira. Horrekin batera, zaldi munduko 8 artisau etorriko dira. Eta zaldia nola pertratzen den ikusteko aukera izango da.

Pottokak ere ikusgai egongo dira Garagartza plazan bertan.


● Pilotaleku txikian,

Arboledan eta Santa Maria kalean zehar, Euskal Herri osotik etorriko diren produktuak eta artisauak egongo dira. Gipuzkoatik 45 bat, eta Nafarroa eta Iparraldetik 25na etortzea espero da. Foie, sagardoa, txakolina, gazta, ardoak, eztia, gindillak, txistorra, patxaran, kontserbak, euskal pastela, ogia, babarrunak, txokolatea... Denetarik egongo da salgai.

Loinaz Agirre



Idiazabalgo Gazta Arboledan egongo da salgai. Gainontzeko artzainenak, pilotaleku txikian eta Santa Maria kalean.



hemen

DISEINU ALTZARIAK

ZURE ETXERAKO NAHI DITUZUN ALTZARIAK

Tefnoa./Faxa: 88 46 41

Urdaneta Kalea, 56

ORDIZIA

IMAZ OPTIKA

- Eguzkitarako betaurrekoetan salneurri eta marka guztiak.
- Kolorezko lentilak.
- Kiroletako betaurreko bereziak (Briko, Ray Ban, Bollé).

Aukera ezin hobea!

☎ 88 12 42

Urdaneta, 14 ORDIZIA

ZEGAMA

Xabier Azurmendi, dantza askatuko txapeldun

Joan den maiatzaren 26an, gazteentzat Euskadiko Bikoteen Dantza Askatuko XIX. txapelketa ospatu zen Bergaran. Goizeko saioan 26 bikotek parte hartu zuten, arratsaldeko finalerako horietatik 10 bikote pasatu zirelarik bakarrik. Horien artean genituen Xabier Azurmendi eta Janire Urbieta bikotea. Hauek izan dira aurtengoan txapeldunak.

Xabierrek esan digunez, 7 urterekin hasi zen dantza ikasten eta hasera hau nahiko bitxia izan zen. Izan ere, bera lehenengo panderoa jotzen ikastera joaten baitzen, baina bertan sueltoko dantzak ere irakasten zituztela eta izena eman omen zuen. Dantza egitea oso gustukoa du, baina Billabonako taldean



Janire Urbieta eta Xabier Azurmendi, Bergarako txapelketa irabazi ondorengo sariekkin.

dagoen giroak asko erakartzen du Xabierrek.

Duela 4 urte hartu zuten lehen aldiz parte Euskadiko Txapelketan. Lehenengo aldian, 1993an 11. egin zuten, 1994an 8., 1995ean 4. eta 1996an txapeldun.

Bere asmoa dantzan jarraitzekoa da. Normalean,

larunbatetan izaten ditu entseiuak goizeko 10.30-etatik eguerdiko 12.30etara, baina gero etxean astean hirutan edo entseiatzen du, eta noski, txapelketa garaian gehiagotan.

Xabierrek adierazi digunez, Billabonara dantzan ikastera joan ahal

izateko ez da gutxieneko mailarik behar, hasiera hasieratik hasten baitira bertan ikastaroak. Beraz, gustatzen zaiona anima bedi, giroagatik bakarrik ere merezi omen du eta. Zorionak!

San Adrian eguna

Ekainaren 16an San Adrian egunaren ospakizuna izango da. Goizeko 11.00etan Meza izango da San Adriango basilizan. Ondoren, hamaiketako gazta, ardoa, ogia eta pastekin. Tripa bete ondoren, trikitilariak. Egun honetan bertan Beundeko Txabolan, aizkora apustua, harrijasotzaileak eta umeentzako zaku karrerak izango dira.

Eduarne Albizu

ITSASONDO

Kultur Asten 12tik 15era

Ekainaren 12tik 15era bitartean, egunero egunero, ekintzaren bat edo beste izango da Kultur astearren barruan. Zer dagoen jakin nahi baduzu, segi kronika hau irakurtzen.

● **Ekainak 12, asteazkena:** 'Txirrindua eta bidaiari alternatiboak' gai hartuta, Josu Iztueta, Nairobitarra bidai alternatiboak antolat-

zen dituen taldeko kidea arituko da, Erretore Etxean, iluntzeko 8.00etan. Hitzaldia eta diapositiba emanaldia izango da.

● **Ekainak 13, osteguna:** Joxe Ramon Agirre 'Marrron' ataundarrak, 'Afrika' diapositiba emanaldia eskainiko du. Hau ere, Erretore Etxean, iluntzeko 8.00etan.

● **Ekainak 14, ostirala:** Haurrentzako, 'Katakarak Trup' Malabarrak izango dira, Herri Eskolan, arratsaldeko 2.30etan. Iluntzeko 9etan, aldiz, Herri Afaria izango da Arbelaitz Elkartean, Gillermo Segurola txiste kontalari eta herriko trikitilariekin. Afarira joan nahi izanez gero, ekainaren 12a aurretik eman beharko da

izena, Nautiko eta Ibarre tabernetan, edo Arbelaitz Elkartean bertan.

● **Ekainak 15, larunbata:** Anje Duhalde Iparraldeko kantari ezagunaren kontzertua izango dugu, gaueko 10.30etan, Errota Pilotalekuan. Sarrera 500 pezeta.

LEIAR
KRISTALDEGIA



ERAKUSKETA:

Ezkiaga Pasealekua z/g 88 88 24

BILTEGIA:

Salbatore Industrialdea 88 60 70

BEASAIN



ZEGAMA

OKINDEGIA

Eskuz egindako ogi naturala

Olaberria Kalea, 6

80 10 66 - 67 22 28 (etxea)

ZEGAMA

* Ogi integralak

* Baserriko ogiak

IDIAZABAL

Igerilekua udarako prest

Azken asteotan konponketak eta txukuntze lanak egin ondoren, ekainaren erdialdera zabalduko dute igerilekua. Arduradunak ere aukuratuta daude, Aritz Albisu, Maitane Egiguren eta Eider Dorronsorok egingo dute lan hori aurtan. Ekainaren hasieran hasi ziren lanean, eta irailera arte arituko dira zeregin horretan. Bere garaian emango du jakitera udalak aurtengo sarrera eta abonuen prezioa.

Txakurjabeei oharra

Azkenaldian herrigunean txakurrak ugaritzen ari direla eta, hainbat herritarren kexa jaso duela jakinarazi du udalak. Egoera honi aurre egiteko, txakurjabeei arau batzuk betetzeko eskatu zaie.

Lehenik eta behin, txakur guztiek mediku txartela eta mikrotxipa beharrezkoak dituztela gogorazi du.



Parkeko lanak aurrera doaz

Txomenarenako parkeko lanak nahiko aurreratuta daude eta ondo bidean hilabete barru zabalduko dute. Udalak parkeari buruzko informazioa biltzen duen triptiko bat kaleratzeko asmoa du, herritarrek parkean dauden zuhaitzak eta landareak hobeto ezagutu ditzaten.

Txakurren kakak eta pisak uste baino gehiago kutsatzen dutela eta, txakurren kakak, jabeek bildu behar

dituztela ere jakinarazi du. Arau hauek bete ezean, neurri gogoragoak hartuko dituela iragarri du udalak.

UEU-rako dirulaguntza

Uztailerako Baionan eta Iruñean Udako Euskal Unibertsitateak antolatu dituen ikastaroetan parte hartzeko dirulaguntza eskaini du udalak. Aurtengo udarako antolatutako ikastaroen zerrenda Kultur Etxean dago jarrita. Informazio gehiago nahi izanez gero, Kultur Etxean bertan eskatu ditzaitezue xehetasunak.

Gautxori abesbatza

Gautxori abesbatzako partaide izan zirenak ekainaren 29an Mujika jatetxean biltzeko asmoa dute. Joateko asmoa izanez gero, M. Rosa Antia, Beatriz Telleria eta Maitere Azurmendiri eman behar zaio izena.

Xabier Urteaga

LEGORRETA

Festa giroak jarraitzen du

Herriko festak pasa berri izanagatik, bada oraindik legorretarren artean festa-rako gogorik. Ekainaren 8an Korputs eguna ospatzen dela eta, juergarekin jarraitzeko aukera aproposa izango dugu.

Goizean goizetik eman go zaio jai egunari hasiera dultzainarien doinuarekin. Goizeko 11.30etan Bilkoin elkarteak antolaturiko herri krossa izango da. Bileraketa izango dira, bata 11 urtera bitarteko partaideentzat eta bestea 12 urtetik gorako korrikalarientzat.

Herri krossari dago-kion sari banaketa eguerdiko 1.30etan izango da.

Arratsaldeko 6etan VII. Ardo Dastatze txapelketa jokatu da. Adi beraz herriko txikitero eta likido preziatuaren zaleak, sari bikainak izango baitira aurtengoan ere. Ordu berean hasita, 7.30ak bitartean, Ordiziako Laguntasuna Errondailaren kalejirak alaituko du herria. Arratsaldeko 6.30etan Udalak ardoa eskainiko du herritar eta bisitari guztientzat. Arratsaldeko 7.30etan,

usariozko meriendak izango dira herriko plazan. Gaueko 8.30etatik 10.00etara, Ordiziako Laguntasuna Errondailak emanaldia eskainiko du. Ondoren, goizalderarte kalejira eta dantza saioa izango dugu Iraunkorrek txarangarekin. Afari-merienda jaisteko dantzan aritzea izango da erremediorik hoberena.

Guraso elkartearen karabana

Joan den hilaren 25eko eguerdian Zaldibiko eta

Legorretako Herri Eskoletako gurasoek kotxe-karabana egin zuten 12 eta 14 urte bitarteko haurrak beraien herrietan ikasten jarraitzeko eskakizuna aldarrikatuz. Bozina hotsik behintzat ez zen falta izan. Larunbat honetan ere beste auto-karabana bat egingo du, borrokan ari diren herri guztiek elkarrekin.

Josune Amondarain

SEGURA

San Juanetan karrerak antolatzen hasi zirenetik, orain 40ren bat urte, funtzionatu izan badu ere, elkarte bezala, 1977an legeztatu zen. Segurako Txirrindulari Elkarteak urtero 3 karrera antolatu eta kosteatu izan ohi ditu, Santa Kutzetan bat eta San Juanetan bi. Horrez gain, Lierniko karreraren antolaketaz arduratzen da, eta 1993an Euskal Bizikletako etapa antolatu eta ordaindu zuen. Gaur, Juan M^a Gereñu, Jexux Gereñu, Joxe M^a Gereñu, Iñaki Telleria, Pablo Gereñu, Iñaki Ugalde, Juan M^a Oiarbide, Jabier Arostegi, Aitzol Telleria eta Iñaki Ormazabal dira elkartekideak. Otsaila aldera elkartzten hasi eta San Juanak ondorenera arte 15ero bildu izan dira. Baina toki gehienetan bezala, diru kontuetan dute arazoa. "Sariak, korredoreen dietak, epaileak, federazioa, laguntzaileei haizketak, altabozak eta ustekabe ugari, gastuak handiak dira" dio Juan M^a Gereñuk. Horri aurre egiteko, etxe komertzialen eta Udalen laguntzaz gain, errifak atera eta bertso jaialdiak antolatzen dituzte. Baina iaz ere zorra egin zen. "Gainerakoan, herritarren laguntza ona da, kruzeak egiteko, haizketak prestatzeko... Orain gainera, motozalerik ez dugunez, jende gehiagoren beharrea gaude".

Jubenilak ekainaren 15ean

Zapatuan, arratsaldeko 3.45etan, emango zaio hasiera jubentil mailako San Juan probari. Plazatik irtenda, 96 km. egingo dituzte, Ormaiztegi aldetik Lierni igota, plazan bertan amaitzeko 18:25 aldera.

23 urtez azpiko eta elite mailakoen IXL San Juan proba, berriz, 23an

Txirrindulari elkartearen urteroko lanean

korrituko da goizeko 9.30etan irtenda. 118 km. izango ditu eta Ormaiztegi-tik Lierni igota, plazan amaituko da 12:25 aldera.

Prozesioa, ardo partiketa eta herri afaria

Ekainaren 9an, 12etako meza nagusiaren ondoren, izango da korpus eguneko prozesioa. Kriseilu txistu taldearen atzetik, San Franzisko, Trinidad, Jesusen Bihotza, San Jose, Ama Errosariokoa eta Milagrosaren estandarteak irtengo dira, eta hauen atzetik palioa, azpian bikarioa kustiokiarekin dela. Ibilbidean bi aldre jartzen dira, Antonkalene aurrean eta Goiko Portalen. Lehen, Ximon Rufinonean ere bai.

Iluntzean, ardo partiketa eta herri afaria izango dira plazan. Ondoren bertsolariak, trikitalariak eta:

Futbolekoiei omenaldia

Jubenilak oraindik igoera promozioan ari badira ere, herriko 4 taldeek burutu duten denboraldi bikaina dela eta, korpus eguneko herri afarian omenalditxo bat



Komerianteak herrian

Komeriante familian jaiota, oraindik ere bada ikuskizun honetatik bizi denik. Pasa den ostiralean, maiatzaren 31n, eguraldiaren laguntzarik gabe, herriko plazan aritu zen Antonio Fernandez, Burgo 64 urteko kontorsionista. Txikitan ere bere gurasoekin komeriante lanetan Seguran izandakoa. Arg.: Joxean Martin.



Valen Carvajalek eskuetan duen 650 gr. inguruko txanpiñoitzarra, Antonio Aldanondok eta Joxelux Etxeberriak paseoan zebiltzala, Mutiloako Murgian inguruan aurkitutakoa da.

egingo zaie jokalaria zein zuzendaritzakoei.

Festak gain-gainean

Festa batzordeak dagoeneko gauzatua du, ekainaren 21ean hasi eta 4 egunez luzatuko den aurtengo San Juan jaietako egitaraua. Idea bat egiteko, ostiralean 21ean, tabernariak eta txosnek ordainduta Trabuko taldea. Zapatuan 22an: Umeen eguna, bola eta toka; gauez Izadi taldea. Jaie 23an: Koadrilen eguna, karrera, Euskadiko dantza txapelketa, gauez Iratxo taldea. Astelehenean 24an: herri kirolak, pelota partiduak, disfrazak eta Drindots taldea. Asteartean 25ean: Atsedenen Jubilatuen eguna, pelota partiduak, poteo elegantea eta txaranga. Egitarau zehaztua hurrengo alean.

Elorri idazlan liburuskak

II. Elorri idazlan sariketatara aurkeztutako lanez osatuta liburuskak kale-ratu da. Bertan, 33 idazlan aurki daitezke eta etxex etxe dohainik banatuko dira.

Txalaparta ikastaroa

Elorri K. Eak antolatuta, txalaparta ikastaroa hasiko da, ostiralean, 7an, 17:00etatik aurrera. Interesatuok ostiral arratsaldean Elorri elkartera azaldu taldeak antolatzeko.

Txangoak eta bidaiak

Laiotz Herri Eskolako 3, 4 eta 5 urteko Haur Hezkuntzakoak eguraldi ona ikusten duten batean Oiangura joango dira. 6 eta 7 urteko 1go eta 2. mailakoak Donostiara, ekainaren 10ean. 3. mailatik 7. mailara artekoak, Urdazubiko kobazuloak ikusi eta Senperera ekainaren 14an. 8. mailakoak, berriz, ikas-bidaia izango dute, Saloura ekainaren 10etik 15era.

Euskadiko bola txapelketa

Xepeño Agirre eta Antonio Agirre herritarrek, ekainaren 15ean, goizeko 8:30etatik aurrera Zerainen izango den Euskadiko bola txapelketarako sailkatuak daude.

Jubenilak promozioan

Igoera promozio 1go partiduan Ondarroako Aurrerari 3-2 irabazi ondoren, itzulera 3ko partidua ekainaren 9an 17:00etan, izango da. Jarraitzaileen autobusa 15:30ean irtengo da plazatik.

Gipuzkoako txapeldunak

Iker Agirrezabal eta Gari-koitx Oiarbide ere, alebilen mailan eta pelotan, Eskolarteko Gipuzkoako txapeldun geratu ziren, maiatzaren 25ean kostakoei 16-3 irabazi ondoren.

Bestalde, maiatzaren 24an, Ordizian, atletismoan neska infantiletan eta 150 metroan, Naiara Otegi, Eskolarteko Gipuzkoako hiru-garren geratu zen.

Valladolidtarrei gonbidapena

Txutxi, Maria eta konpainia gonbidatuta zaudete Segurako jaietara. Azaldu!

Joseba Telleria

BEASAIN

Etxeetako zabor-bilketa sistema martxan

Bizilagun talde batek, etxe-etako zabor-bilketa deritzon zerbitzua martxan jarri nahi du, zerbitzu honek beste hainbat herritan izan duen harrera ona ikusirik. Kuota txiki baten truke, egunero joango zaizkizu zerbitzu honetako kideak, etxean duzun zabor poltsa dagokion lekura eramatera. Etxe bloke osoak zerbitzu berri hau jaso nahi izanez gero, behe-rapena izango da.

Ongizate Sozial sailak eskainitako laguntza du. Zerbitzu honen jabe egin nahi izanez gero, zure administrariarekin kontaktuan jartzea eskatzen da.

Dantzari Txiki eguna

Ekainaren 16an ospatuko da Dantzari Txiki eguna. Hasiera batean Loinatz jaie-tan ospatzen zen, udazken kulturean ere ospatu izan da. Aurren, berriz, San Juanak baino astebete lehenago ospatuko da. 8 talde elkar-tuko dira: Urretxuko Lurra, Oreretako Ereintza, Ordiziako Jakintza, Zaldibiko Iztueta, Portugaleteko Ber-ritasuna, eta Beasaingo Ostadar eta Aurtzaka. Guz-tira 250 haur baino gehiago elkartuko dira.

Goizeko 11.00etan alar-dea egingo dute Loinazpe ikastetxetik herriko plazara bitartean. Desfilean zenbait atsedean egingo dira dantza-riek beraien dantza saioak eskaintzeko. Aurreko urtee-tan bazkaltzera zenbait he-rritarren etxeetara joaten baziren ere, auten, plaza az-pian bazkalduko dute guz-tiek elkarrekin. Arratsalde-ko 5.00etan dantza talde ba-koitzako Loinazko San

Martin plazan bina dantza eskainiko ditu.

Aurtzaka Dantza Talde-ak antolatzen du Dantzari

Txikien eguna, eta honen truk bere dantzariak herri ezberdinetako Dantzari txi-ki egunetan parte hartzen dute. Dagoeneko Lezon,



Jaiei errepasoa

Loinatzetan izandako hainbat lehiaketan irabazleak hauek dira.

* **Erakusleihenetan:** San Martin Autozerbitzua lehenengo; Fotoetxe bigarren; eta Kenfor hirugarren.

* **'Beasain Hiria' argazki lehiaketa:** Berangoko J.P. Fernandez, Bergarako Benito Cantero, Bergarako J.A. Unzurrunzaga. Akzesitak Legazpiko Jesus Alonso eta Bergarako Daniel Santosentzat izan ziren. Lehenengo be-asaindarraren saria Javier Quirosek jaso zuen.

* **Lagunarteko futbol txapelketa:** Bi urtez segidan, Auskalo taldeak irabazi zuen, Zumazuritze taldeari 5-4 irabazi ondoren.

* Azoka berezia:

- Posturik dotoreenaren saria Arriarango Iturritza baserri-ko Estefania Albisuk jaso zuen.

- Barazki ederrenak, Murugoene baserriko Inaxi Aranbu-ruk aurkeztu zituen.

- Produktu originalenak, batez ere neurriari dagozkionak, Gabiriko Agerre-berri baserriko Maria Etxezarretak ekarri zituen.

- Loreetan, Zaldibiko Iñaki Azanzak jaso zuen lehenengo saria.

* **Sukaldaritzak:** Usurbe, Murumendi eta Aizkorri elkar-te-ak, ordena honetan, izan ziren sukaldaririk onenak. Pote-ko babarrun txuriak almejekin eta legatza kokotxa izoz-tuekin prestatu behar izan zituzten.

* **Herri kirolak:** Olasagasti eta Arria V.a nagusitu ziren aizkoran.

Oreretan eta Ordizian izan dira. Oraindik ordea, Urret-xura joatekoak dira.

Kontxiren Balet eskola

20 bat neskamutiek osa-tzen dute Kontxi Aranburu-ren Balet taldea. Astero ba-let klasikoa ikasten dute J.M. Iturriotz kaleko areto-an. Hilaren 9an, goizeko 11etan, beraiek ikasten du-tena jende aurrean eskaini-ko dute. Kontxik esan digu-nez, beraien helburua dant-zatzen gozatu egiten dutela adieraztea da. Bera oso gus-tora da haurrek adierazi du-ten laguntzagatik eta horre-gatik eraman da aurrera eki-taldi hau.

Baliogutxituei nor-banakako lagutzak

Interasatu guztiei gogora arazten zaie minusbalioak dituzten pertsonentzat La-guntza teknikoak eta beste-lako prestazio indibidualak eskatzeko epea ekainaren 9an amaituko dela.

Laguntza hauen eskaera, Gizarte-Laguntzailearen bulegoan aurkeztuko dira, eta aurretik 88 59 04 telefo-nora deitu beharko da, egu-na eta ordua jartzeko.

Ai Geala irratsaioa oporretan

Ai Geala euskara taldeak Segura Irratian aireratzen duen izen bereko irratsaio-ak oporrak hartu ditu. Iaz sortu zen larunbat goizeko magazina. Haiseran ordube-tekoa, eta aurren hiru ordu-koa. Bertatik pertsona eta gai ugari pasa dira 2. epe honetan.

Izaskun Salazar

ATAUN

Aitzol Munduate bertsoan txapeldun

Gipuzkoako Eskolarteko txapela jantzi zuen maiatzaren 24an Zarautzen, bertso paperetan. 4. eta 5. mailakoen artean lortu zuen lehen postua.

Izen-abizenak:
Aitzol Munduate Barandiaran

Jaioteguna:
1986-IV-21a.

Bizilekua: Elbarrrenako Ubarrietxe.



- **Noiztik bertsoan?** - 7 urterekin hasita.
- **Bapatean bai?** - Inoiz bai, baina bertso paperetan hobeto.
- **Nor erakusle?** - Goiko dut maixu, baina etxean aitarekin ere saiatzen naiz.
- **Ze gai gustoko?** - Umorezkoak batez ere baina denetik egiten dugu.
- **Ze neurri?** - Zortziko txikian ondoen.
- **Ze bertsolari gogoko?** - Hirukoa. Peñaren txispa, Lizasoren etorria eta Egañaren jakinduria.
- **Jarri zizuen gaia?** - "Lore sorta bat biltzen ari naiz".
- **Idatzi zuen bertsoa:**

Lore sorta bat biltzen ari naiz
maiatza bero batean,
mendan gora eta behera
mila enaren artean,
oso ederki nago hementxe
bi mendixoren tartean,
usain gozoz inguratutik
aukeratu ezinean.

- **Ze lore maite duzu Aitzol?** - Larroxa gorrie.

Ur sarea konponduta

Gehiena behintzat! Konponketak hasi aurretik, 100 litrotik 67 galtzen ziren deposituetatik etxetara bidean. Orain, berriz, 18 besterik ez. Galera 25 litroz azpitik uztea zen Udalaren as-

moa eta gustora daude, nahiz eta aurrerantzean ere galerak izango diren ur-sarea oso zahartuta dagoelako. Eta eskerrik asko, herriar guztiei pazientzia hartu dituzuelako "endredo" guztiak.



60 urte ezkontuta

Inazio Aierbe Arza (85 urte. Lauztiturrietakoa) eta Mikaela Auzmendi Munduate (84 urte. Lauztiturrieta-Berrikoa). 1936ko garagarriaren 6an ezkondu ziren San Gregorioko elizan. Gerratea sartu baino egun batzuk lehenago. Lauztiturrieta baserrian bizi dira. 3 seme eta 4 biloba dituzte atzetio. Urte askotarako!

Elkarteei dirulaguntzak

Udalak erabaki ditu 96rako, Elkarrekin aurkeztu dituzten ekintzetarako laguntzak. Ekintza horiek egin egin behar dira laguntza jasotzeko.

Ataun Kirol Elkartea:
551.540 pezeta.

Joxemiel Barandiaran-Murkondo
354.999 pezeta.

J.M. Barandiaran Eskola:
322.835 pezeta.

Gazte Asanblada:
255.683 pezeta.

Dantza taldea:
228.052 pezeta.

Atsedentoki Elkartea:
171.114 pezeta.

Eate Abesbatza:
120.000 pezeta.

Artadi Elkartea:
102.638 pezeta.

Haurkide Elkartea:
73.140 pezeta.

Guztira:

2.079.981 pezeta.

Nitxo berriak

Tolosako Uzturpe kontratistak egingo ditu berriak, 4 hilabeteko epean. San Gregoriotik hasiko da. 36 nitxo berri. Lehen 24 daude. San Martinen 24 berri egingo dira. Lehen 48 daude. 5 milioi t'erdian egin da adjudikazioa.

Heriotzak

Martin Barandiaran Etxeberria. Aitzio-Goiko baserrikoa. Maiatzaren 26an hil zen, 42 urte zituela.

Sor Josebe Auzmendi Tolosa. Arrondoko Lazkautegikoa. "Aurkezkunde" edo "Presentacion de Maria"ko moja. Maiatzaren 26an hil zen Gasteizen 87 urte zituela.

Jon Aizpurua

ORDIZIA

Dantzari Txiki eguna umore onean

Hala joan zen joaneko igandeko eguna, nahiz eta euriak gauzak okertu nahi izan zituen. Goizean-goizetik Euskal Herriko txoko ugaritatiek etorritako dantzariak alaitu zituzten auzo eta kaleak. Umorea ez zen falta izan eta jendeak modu onez hartu zituen dantzari txikiek eskeinitako dantza-saio ezberdinak.

Aurtengoa 12. edizioa bete du egun berezi honek. Orain hiru urte sartutako berrikuntza ere positibo bezela ikusten dute antolatzaileek, hau da, herritarrek eskertzen dutela dantza ekitaldiak auzoetara zabaltzea eta ez hirigunean bakarrik izatera, lehen egiten zen bezala. Bazkaria ere ezin hobe joan zen. Aurten pilotalekuan egitea erabaki zuten eta aukera aproposa izan zela baieztatu daiteke.

San Juan sua

San Juan eguna hurbiltzen ari zaigula eta, bertan parte hartzeko entseiuak hasiak dira. Hain egun seinalatuan dantza egiteko prest bazauden jakin dezazula entseiuak

Santa Ana ikastetxean izaten direla arratsaldeko 7.30etatik aurrera.

XV Saskibaloitxapelketa

Urtero bezela saskibaloizaleek aukera izango dute lagunarteko txapelketan parte hartzeko. Izen-emateko orriak Boga-Boga eta Majori tabernetan daude ipinita eta. Ekainaren 13a baino lehenago eman beharko duzue taldearen izena eta jakin multzoen banaketa egiteko zozketa 14an izango dela. Urtero bezela Barreran arratsaldeko 7etan. Txapelketa 17an hasiko da eta finala uztailaren 19an izango delakoan dabilta antolatzaileak.

Piragua ikastaroak

Uda hurbil dugula eta, Majori Kiroldegia piragua ikastaroa antolatu du. Interesaturik bazaude kiroldegian bertan eman beharko duzue izena. Ikastaroak 6 egun iraungo ditu, uztailaren 1etik 6ra bitartean eta prezioa 3.000 edo 4.000 pezetakoa izango da.



Zelaiaren estreinaldia

Hainbesteko laudorio jaso dituen Trebijano rugby-zelaia zapaltzeko asmotan dabilta jadanik. Lanak amaitu zirenetik hilabete dexte pasa direnean eskolarteko txapelketa antolatu dute ekainaren 8 eta 22rako. Bi maila bereizi daitezke, batetik 11 urte bitartekoentzat eta beste 11 eta 15 bitartekoentzat. Norgehiagokak goizeko 10.30etan hasiko dira.

Txirrindularitza

Ordiziako zikloturista eta Itxaropena Elkartek antolatuta Gizartearteko Zikloturismo 2. Klasika jokatu da datorren ekainaren 16an. Era berean Gipuzkoako VI Challengea ere izango da. Ibilbidea Ordizia-Larraitz-

Ordizia izango da, 80 kilometro guztira eta parte hartu nahi duenak 1.200 pezetara ordaindu beharko dituzte. Laster-

keta Itxaropena Elkartetik aterako da goizeko 8.30etan eta izen-ematea egun bereko goizeko 7etan irekiko da.

Ordizia K.E. Urpekoak

Urteko trabesiarik garrantzitsuenen taldekako garai-pena lortu zuen Ordiziako Urpekoak taldekoek. Travesia Bidasoaren jeitsiera izan zen eta bertan senior mailan, 15 Km-ko ibilbidearen ondoren, Jon Iturrioz, Iñigo Feliz eta Diego Diez ordiziarrak izan ziren lehenengo hiru postuak lortu zituztenak. Nesken artean, berriaz, Olatz Mendizabal bigarrena izan zen, Maite Sebastian taldekidearen aurretik hain zuzen.

Aitor Calvillo

UDA 96

KIROL EKINTZAK
ADINA 6tik 16ra

Tenis, Paddle, Squash, Badminton, Txirristi-Mirristi, Eskalada, Piragüismo, Hipika, Ur-azpiko ekintzak, Mountain-Bike, Igeriketa, Mendi irteerak eta bestelako ekintzak.

ADINA 17tik 30era

Tenis, Paddle, Squash, Badminton, Eskalada, Piragüismo, Hipika, Ur-azpiko ekintzak, Igeriketa, Mendi irteerak, Parapente, Rafting, Arroil-jeitsiera eta Hidrospeed.

ADINA 30tik aurrera

Tenis, Paddle, Ur-azpiko ekintzak, Igeriketa, Piragüismo, Rafting, Hipika eta mendi irteerak.

Egutegi, ordutegi eta prezioei buruz informazio gehiago:

☎ 88 93 33/88 93 53



ORDIZIA



ZALDIBIA

Eskolarteko dantza txapelketa

Datorren igandean, ekainak 9, Gipuzkoako eskolarteko dantza txapelketaren finala izango da Zaldibian. 6 urte-tik 18ra bitartekoek hartuko dute parte. Goizean, txapelketaren derrigorrezko atalean, Gipuzkoako dantza eskainiko dituzte, eta, arratsaldeak, norberak aukeratu-takoak edo librekoak.

Zilarrezko ezteiak betetzen ditu aurreko txapelketa honek. Ez da kasualitatea, ordea, zilarrezko ezteiak Zaldibian ospatzea. Izan ere, lehen Eskolarteko dantza txapelketa hau Zaldibian bertan egin baituzten, duela 25 urte.

Txapelketa honetan izango dugu Goierriko ordezkariak. Ordiziako Jakintza Ikastolako nesken 4 talde izango ditu txapelketan.

Konfirmazioa

Joan den larunbatean, ekainak 1, herriko 18 gazte egin zuten konfirmazioa, Gipuzkoako eliz barrutiko bikario jenerala den Jose Antonio Pagolaren eskutik. Jose Antonio Pagolak biziki eskertu zituen gazte horiekin lanean jardun duten parroki ardura eta beste gazte batzuk. Eta fede hobeto bizitzen laguntzeko tresna izan behar zuela azpimarkatu zuen. Guri, elizkizunaren harian, bertso

hauxe bururatu zitzaigun:

Egia esan, nik ez dizuet lezio handirik emango, baina gauza bat buruan sartu nahi nizukeke txit ondo: izan zaitezte pertsona onak edo gizonak lehenengo, eta ez zarete kristauak ere orduan txarrak izango.

3. postuaren bila

Zaldibiak, herri arteko pilota txapelketan, Azpeitiaren kontra galdu zuen, 3. postuaren bila jo beharko du. Amezketan izango du kontrario eta ekainaren 15ean jokatuko dira partidak, Tolosan.



Bakearen beharra

Elkarrik antolaturik, interes handia piztu zuen hitzaldia izanda da Zaldibian. Josune Etxeberriaren zuzendaritzapean Patxi Zabaleta, Joxerra Garzia eta Juan Mari Juaristik osatu zuten mahai. Zabaletaren ustez, bakea urjentea da Euskal Herrian, batez ere preso eta familiartekoentzat. Euskal Herria ikuspegi abertzalena dutenena baino errealitate

zabalagoa zela esan zuen beste momentu batean. Gure oinarri kulturalak ondo sendotuz gero, kanpoko eraginei ez zitzaizela hainbeste beldur izan behar erantsi zuen.

Joxerra Garziak, metafora polit bat erabiliz, ibaiaren bi aldemenetik, elkarri begiratu gabe, doan herrizat hartu zuen Euskal Herria eta egora hau gainditzeko ezinbestekoa zela ibaiaren alde batetik bestera zubiak egitea esan zuen. Eta hori lortzeko, euskarak eta euskal kulturak duen garrantzia aipatu zituen, ondoren.

Juan Mari Juaristik, EAJren ordezkaria izaki, bere alderdiak egundoko interesa duela bakea lor dadin esan zuen, eta era guztietako ahaleginak egingo dituela, nahiz eta batzuetan, gobernatzeko ardura tarteko delarik, pragmatismoz jokatu behar eta kontraesanak dituzten itxurak eman.

Uraren erreziboak

Hil honen azkenera arteko epea dago 1996ko lehen hiru hilabeteko uraren erreziboak ordaintzeko. Kexarik duenak hori azaltzeko modua ere badu eta jo beza Udaletxeko Diruzaintza Departamendura.

Kurtso amaiera


Helduen katekisia izenburupean eta "Famili bizitza" lemarekin zenbait hitzaldi eman ditu Jesus Mari Arrietak. Kurtsoari amaiera datorren larunbatean, ekainak 8, emango zaio. Beraz, arratsaldeko 6etan azkeneko hitzaldia eta iluntzeko 8.30etan lagunarteko afaria izango dira. Afarian parte hartu nahi duenak dei biezio Pilar Garmendia edo Josune Munduateari.

Presoen alde Zubi Buru

Zubi Buru elkarteak presoen aldeko eguna ospatuko du larunbatean. Trikitiarekin poteoa, Toka txapelketa eta herri afaria izango dira. Afaltzeko, entsalada mixta, mingaina, ojalde pastela, kafea, kopa eta purua prestatu dute. Langabetu eta ikasleek 1.000 pezeta ordaindu beharko dute eta gainontzekoek 1.500.

Afalondoren, Amaitz Alaitasuna musika taldearen jarduna izango da. Gipuzkoako kantu txapelketako irabazleak dira, Josean Martin (tenorea), Iñaki Labaka (kitarra eta ahotsa) eta Alaitz (soinua eta ahotsa). Beste txapelkun bat ere izango da: Gari Mendizabal Euskal Herriko txistulari txapelketako irabazlea.

Rufino Iraola



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxebizitzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, iturri eta gehigarriak
- Hidromasaia bainerak eta saunak
- Subaju eta ikatz eta egurrezko sukaldeak

Barandiaran
ZERAMIKAK

☎ 88 79 72
Senpere. 7
BEASAIN

ORMAIZTEGI

Uda gainean dugunez, Udal igerilekuak ekainaren 22an irekiko dituzte. Aurreko urteetan bezala, goizeko 11.00etatik arratsaldeko 8.00ak arte egongo dira zabalik. Udal zerbitzua erabiltzeagatik prezio publikoen tarifa ondorengo izango da:

0-5 urte bitarteko haurrek dohai-
nik izango dute sarrera. 5 eta 7 urte
bitartekoek, sarrera 175 pezeta; 20
bainuko bonoa 2.520 eta urtealdia
3.050. 7-18 bitartekoek sarrera 290
pezeta; 20 bainuko bonoa 4.660 eta
urtealdia 5.120 pezeta. 18 urte
aurrerakoek 405 pezeta ordaindu
beharko dute sarrera; 20 bainualdi
6.210 eta urtealdia 7.185. Famili
bonoak ere egongo dira: bi kideko
famiarentzat urtealdiko bonoa
10.240 pezeta; hiru kidekoak
11.215; lau kidekoak 12.570 eta
bost kide edo gehiagokoak 13.280.

Erretiratu, pentsionista, lanik
gabeko eta ezindunei laguntza
emango zaie. Honetarako beraien
eskariak aurkeztu beharko dituzte

Igerilekuen irekitzen

udal bulegoetan, ekainaren 30 au-
rretik. Bonoak egin eta laguntzak
eskatu ahal izateko ekainaren 17tik
aurrera, udal bulegoetan, 10.00eta-
tik ordu batera izangö duzue auke-
ra. Karnet neurriko argazkia beha-
rezkoa izango da.

Presoen aldeko eguna

Larunbatean, ekainaren 8an, preso-
en aldeko eguna antolatu dute Am-
nistiaren Aldeko Batzordeek. Goi-
zeko 8.30etan, mendi ibilaldia
egingo dute Ormaiztegi inguruan.
Iteera Gaztetxe aurrean izango da.
Arra-tsaldeko 6.00etan, espetxeeta-
ko egoera eta presoen borrokari bu-
ruzko bideo emanaldia izango da
Kultur Etxean. Iluntzeko 8.00etan
'Euskal Presoak Euskal Herrira' le-
mapean enkartelada egingo da
Udaletxe aurrean. Eta 9.30etan,
afari herrikoia izango da Bardulia-
rrak elkartean. Gazteek 1.000 peze-
ta ordaindu beharko dute eta hel-
duek 1.800 pezeta.

Aitziber Murua

LAZKAO

Kirola udan

Urtero beza-
la, udako ki-
rol ihardue-
rak antolatu
ditu Udalak.

Eskolau-
meentzat on-
dorengo kiro-
lak daude au-
keran: xakea,
arku tiraketa,
igeriketa, te-
nisa, beisbo-
la/ sofobola,
mendiko txi-
rrindularitza,
irristaketa, pi-
raguismoa, eskalada, atletismoa-
jaurtiketak, badmintona, shorinoi
kenpo, saskibaloia eta pilota.

Gazte eta helduentzat ondoren-
goak daude: arku tiraketa, igerike-
ta, tenisa, piraguismoa, eskalada
eta mendiko txirindularitza.



Lazko udan arrakasta handiena izan zuen kirolak hauek izan ziren: igeriketa (140 partaide), tenisa (116), piraguismoa (34), eskalada (15), arku tiraketa (15). Argazkian ikusten den bezala, piraguismoa egiteko Lazkaon bertan leku egokia dago fraile komentutik behera.

Izen ematea Joxemiel Barandian-
ran kiroldegian egingo da. Izen
emate ordena errespetatuko da pla-
zak bete arte. Epea ekainaren 19an
amaituko da ekainaren 24an hasten
diren iharduerentzat, eta ekainaren
26an uztailaren 1etik atzera hasten
diren iharduerentzat.

Zure eguzki betaurrekoak erosiz gero,
kamiseta eksklusibo bat oparituko dizugu

EGUZKITARAKO JANTZITA



GIULIO TABACCHI

Eguzki betaurrekoen bilduma berria

Estilo berri bat heldu da. Estilo ausarta, bakana, desberdina.

Eguzki betaurrekoen diseinu deigarria,
lotsarik gabeko jendearentzat.

Multipticasen Giulio Tabacchiren bilduma berria da.

Gainera, nahi baduzu, graduatzen dizkizugu.

Zatoz eta jantzi zaitez eguzkitarako.

MULTIOPTICAS J. LARRAÑAGA

ZERBITZU OPTIKOETAN 1a

J. Carlos Guerra, 1 • ARRASATE

Ibargaray, 16 • BERGARA

J. M. Barandiaran Enparantza, s/n • ORDIZIA

MULTIOPTICAS EIBAR

ZERBITZU OPTIKOETAN 1a

Bidebarrieta, 2 • EIBAR

Euskal Herriko Bola Txapelketa Zerainen

Aurten Zerainen ospatuko da Euskal Herriko bola txapelketa, ekainaren 15ean, larunbata. Liztormendi bolatokian izango da. Lehenengo aldia da Zerainen maila honetako txapelketa bat jokatzeko dela. Gipuzkoa, Bizkaia eta Araban txandaka ospatzen da txapelketa hau, eta iaz Araban izan zen. Txapelketan parte hartu dutenak hiru probintzietan egindako txapelketetan aukeratutako 15na bolari eta iaz txapeldun iritendakoa, Solaun arabarra, izango dira, denera 46 lagun. Goierriatik 4 lagun arituko dira: Antonio Alustiza, Zerain bertakoa, Juan Alustiza mutiloarra eta Xepeño Agirre eta Antonio Agirre segurarrak.

Txapelketa goizeko 8.30etan hasiko da, 8.00etan zozketa egin ondoren. Bi botaldi izango dira, tartean atsedena egingo dute, eta bakoitzean seina bola bota behar duzute. Guztira birla gehiena botatzea lortu duena izango da txapelduna. Sari ematea bazkalondoan izango da.

Afizio handia

Zerainen beti izan da

bolatarako afizioa. Herrian bederatzi bolatoki izatera iritsi ziren. Orain ere urtero bi bola txapelketa ospatzen dira, bata herriko festetan, eta bestea Euskal Herriko txapeldun izandako Endika Alustiza zenaren omenezkoa.

Eskualde ezberdinetan bolatan jokatzeko era desberdinak daude, eta Zerainen Gipuzkoa gehienez jokatzeko den erara jokatzeko da. Hain zuzen ere, gipuzkeraz hitzegiten den lurraldean jokatzeko era berdinean.

Galtzeak dagoen kirola?

Gipuzkoan 16 bolatoki dau-



Euskal Herriko txapeldun izandako Endika Alustiza zena, bola botatzen

de gaur egun. Goierri aldean dextente ditugu. Gabirian 2, Olaberrian, Zerainen, Seguran eta Idiazabal. Mu-

tiloan pilotaleku berriarekin batera, bolatokia egingo dute.

Gipuzkoako txapelketa beraz, bolatoki guztietan egiten dira jardunaldiak. Hortik aterako dira Euskal Herriko txapelketetarako sailkatuak.

Bola jokoak ez du gaur egun arrakasta handiegirik. Luis Aizpeolea zeraindarrak adierazi digunez, "gazte gutxi ibiltzen da. Idiazabal eta Seguran gazte batzuk badabilta, baina gutxi. Gainera, dirulaguntza gutxi izanten dugu. Askotan sariak geure poltsikotik ordainduta jartzen ditugu".

Andoitz Telleria

Datu teknikoak:

- * **Bolaren pisua:** 9 kilo (Bizkaian 14-16 kilo)
- * **Bolatokiaren luzeera** 23 m.; **zabalera** 3,5-4 m.
- * **Egurraren luzeera:** 4 m; **zabalera** 25 zm.
- * **Birlak:** 9 (garai batean egurrezkoak, gaur egun plastikozkoak).
- * **Txaparroa:** birletatik 15 metrora egon behar du.
- * **Botaldiak:** normalean bolari bakoitzak 8 botaldi egiten ditu; botaldi ofizialetan, berriz, 6 botaldi.



☎ 88 55 00 ORDIZIA

IBAI-ONDO



**ZURGINTZA
ALTZARIAK
P.V.C.ko LEIHOAK**

Antzizar Auzoa, z/g
☎ 880543 BEASAIN



- ✓ Ileapaindegia
- ✓ Edergintza
- ✓ Solariuma
- itxura aldaketa

Nafarroa Etorbidea, 37
☎ 88 02 97 BEASAIN

Gipuzkoako euskal kantu txapelketa

Joan zen maiatzaren 25en Helden Gipuzkoako Euskal Kantu txapelketako kanporaketak izan ziren Oiartzunen. Bertan Goierriko 4 ordezkari izan ziren. Txukun aritu baziren ere, inork ez zuen Euskal Herriko finalean sartzerik izan. Ez dute ilusiorik galdu eta aurrerantzean abesten jarraitzeko asmoa azaldu dute, gustoko afizioa baitute denek ere.

4 urtez behin egiten da helduen txapelketa. Finala Gasteizen jokatuko da ekainaren 15ean.

Orri honetan duzue, goierritar abeslari hauek ezagutzeko aukera.



Laguntasuna Errondalla

Hitarok animatu eta euskal kantu txapelketa bultzatzeko asmoarekin joan ziren. Normalean ez dute txapelketetan parte hartzen. 12 lagun joan ziren, muga hori zelako. Momentu honetan 16 dira, gorabeherak izaten dira lana eta ikasketen arabera.

Inguruko herrietako festetan aktuatzen dute, ezkontzetan jotzen dute, andregaiari erronda egiten diote, zaharren egoitzetan dexente jotzen dute. Afizio hutsez aritzen dira. Ondo pasatu eta musikarako zaletasuna dutelako. 36-37 urte dauzka errondallak eta pena da horrelako gauza bat galtzea, gainera Euskal Herrian dagoen bakarra da.

Instrumentuak: gitarra, bandurria, akordeoia eta panderoa. Ostiralero entseiatzen dute. Taldea irekia da eta edozein gerturatu daiteke konpromezurik gabe.



Alaitz Katarain eta Ainitze Otamendi

Idiazabalدارrek 'Iturengo arotza' eta 'Mendian gora haritza' doinuak abestu zituzten kitarraren laguntzaz. Duela 4 urte egin zen txapelketan ere parte hartu zuen Alaitzek, baina orduan bakarka. *"Beti abeslari berdinak dabil-tza plazetan. Beste batzuk ezagutzera emateko eta euskara bultzatzeko saioa zela ikusita animatu nintzen parte hartzera"*, adierazi du Alaitzek.

Abestea asko gustatzen zaie. Kitarra jotzen ikasten ari dira Alaitz eta Ainitze. Dena den, etorkizunari begira ez dute asmo seriorik. Abestea gustatzen zaielako aurkeztu ziren txapelketara, eta ez bestelako asmoarekin.



Iñaki Aranburu eta Xabier Barreros

Urtebete daramate Iñakik eta Xabierrek, kantuarren munduan murgilduta. Ordizian kontzerturen bat edo beste eman dute. Musika Eskolan solfeo eta kitarra ikasketak egiten ari dira biak eta kitararren laguntza izan zuten Kantu txapelketan. Itoitz taldearen 'Lau teilatu' eta eurrak konposatutako 'Biharamon Blues' interpretatu zituzten. *"Musika aurretik geneukan eginda. Baina letra astebetean egin genuen"*, adierazi digu Iñakik. Maila handia izan omen zen Txapelketan. Ez zuten *"susto"* makala hartu hango eszenatokia, argiak eta mikrofonoak ikustean.

Helburu finkorik gabe elkartu zen bikotea, baina aukera izanez gero, aurrera jarraitzeko gogoz daude. Iñaki ordiziarra da eta Xabier Beasaingoa, nahiz eta bizi-tza soziala Ordizian egin.



Xabier Matarranz eta Laura La Tienda

Beasaingo La Salle-San Jose ikastetxeko irakasle-ikasleak dira. Ikastetxean egin zuten 'Euskararen hamabostaldian' bi abesti aurkeztu zituzten eta handik aurrera, kasualitateak eraman zituen Oiartzuneraino. Bi kitarren laguntzarekin, Maixa eta Itziarren 'Iluntzean' eta Akelarre taldearen 'Ormalko bi' abestiak interpretatu zituzten.

21 talde aurkeztu ziren eta beraien azkenekoak izan ziren abesten. *"Gaueko 10.30ak aldera hasi zen eta guk ordu biak arte ez genuen abestu. Nerbioak ez dakit non geneuzkan"*, esan digu Xabierrek. Hala ere, esperientzia oso polita izan zen. Horrelako eszenatoki handi eta dotore baten gainera igotzean, *"erantzukizun handia geneukan. Ezin ginen ixilik gelditu, kantatu beharra geneukan"*, gaineratu du. Ikastetxe mailan musika talde bat sortzeko ideia dabilki buruan Xabierrek.

KARLISTA ETA LIBERALAK ALTXORRAREN BILA ARITU ZIREN ORMAIZTEGIN

Zumalakarregi Museoko Zumagazte tailerraren bidez historian murgiltzen dira gaztetxoak

Ormaiztegiko Zumalakarregi Museoa, 6 eta 12 urte bitarteko haurrekin Zumagazte tailerra biltzen da asteazkeneko. Historiara, XIX. mendera zehazki, hurbiltzen dira gaztetxoak. Maiatzaren 29an, Museo Eguna aprobetxatuz, Museoko ume bazkideen laguntzaz, "Tira-bira Ormaiztegin: karlistak eta liberalak altxorraren bila" aritu ziren.

Iaz sortu zen Zumagazte. "Umeak egunero-egunero Museora joaten ziren eta nahi zuten bezala ibiltzen ziren. Orden piska bat jarri behar zela ikusi zen. Publiko propio bat genuen, infantila batez ere, 6-12 urte bitartekoak, potentzial handia dute beraiekin zerbait egiteko. Orduan tailerra jarri genuen, asteazkenetan, arratsaldeko 4etatik 6.30-etara", argitu digu Karmele Barandiaran Museoko arduradunak.

Bi edo hiru hilabetero gai bat lantzen dute. Beti ere XIX. mendean oinarritutako gaiak. "Oso aktiboak dira, oso adin ona daukate, curiosidadea mantentzen baitute". Historia zer den, nola ikasten den, historia ez dela zerbait serioa, edonon dagoela, dena dela historia... irakasten diote. "Zumalakarregi eta Espartero nor izan ziren badakite, nola bizi ziren ere bai... oinarritzko gauzak badakizkete. Jolasaren, praktikaren bidez ikasten dute".

50 bazkide ditu Zumagazte une honetan. Gehienak ormaiztegiarrak dira.



Aspaldi handian, ormaiztegiar aberats bat Ameriketatik itzuli eta, hil baino lehen, bi altxor gorde zituen herrian. Urteak joan, urteak etorri, Gerra Karlista lehertu zen Euskal Herrian. Zumalakarregi jeneral karlista eta Espartero jeneral liberala, nor bere ejerzitoarekin, Ormaiztegiara etorri ziren altxor horien bila. Esku hutsik alde egin zuten, ordea, altxorrak ez baitziren agertu...

Aurten Zumalakarregi Museoko artxibategiko paper zaharren artean zer aurkituko, eta ormaiztegiar aberats hark utzitako pistak. Altxorrak berreskuratzeko ormaiztegiar gazteei laguntza eskatu zioten.

Ejerzito karlista eta liberala berriro osatu ziren: ferratzailea, sendagilea, ehiztaria, sukaldaria, postaria, artileroa, jostuna, egurgina, baserritarra, abeltzaina eta, nola ez, jenerala eta bere laguntzailea. Azken bi hauek, mapa baten laguntzaz, beste partaideei nora abiatu esan eta bakoitzak bere proba gaitzitu zuen. Proba guztiak gaitzitu ondoren, denak abiatu ziren bi taldetan banatu eta bi ezkutalekuetan gordetako altxorraren bila.

Bi trenzubien azpia izan zuten 'lehialekua'. Zumalakarregi Muner Ziani marrokiarra zen eta Espartero, Aiora Ezkurdia. Aginduak ondo eman zituzten, ordu eta erdiko jokua bazen ere, ordu erdian aurkitu baitzuten altxorra. Eguzkiaren beroak eta korrikaldiak erabat berotuta utzi zituen gaztetxoak. Hala ere, karlistak gustora, liberalek baino lehen eurek aurkitu baitzuten altxorra.

Hurrengo urteetan, ekintza hau maiatzero errepikatzeko asmoa dute Museoko arduradunek. Hala ere, aurten asteazken arratsaldean egin bada ere, datozen urteetan larunbat goizetan egiteko nahia azaldu dute.

Tailerra jende gehiagori zabaldu asmoz, asteazkenetik larunbatera pasatzeko asmoa dute Museokoek. Bazkide izateko hauex egin

behar da: 100 pezeta ordaindu eta karneta atera. Batez ere 6tik 12-14ra bitartekoentzat da tailerra "baina 16koak etorri gero, gu-

retzat askoz ere hobeto. Baina ez dira etortzen. Gaztetxea museoaren ondoan dago eta kompetentzia egiten digu. Museora etorri beharrean Gaztetxera joaten dira", azpimarratu digu.

Euskal Herrian ez da oso ohikoa Museoetan haurrentzako tailerrak antolatzea. Karmele Barandiaranen esanetan, Frantzia eta Ingalaterra aldean, ordea, nahiko arrunta da. Gauzak honela, oso positibotzat jotzen dute Ormaiztegiko esperimentzia.

15.000 erabiltzaile

Museoak gero eta bisitari gehiago ditu. 89an 2.900 lagun pasa ziren eta iaz, berriaz, guztira 15.000 erabiltzaile izan zituen. Erabiltzaileen artean, Museoa bisitatu zutenak eta Zumakit maleta didaktikoak erabili zituztenak sartzen dira. Karmele Barandiaranek azpimarratu digunez gainera, gero eta bisitari indibidual eta heldu gehiago dituzte.

Gero eta gehiagora doaz. Eta gero eta gehiago dira prestatzen ari diren eskaintzak. Ekainean esaterako, bi ibilbide promozionatuko dituzte: bata, Zerainekin elkarlanean, Zerain herria eta museo bera bisitatzeko, egun osoko ibilbidea. Eta bestea, Ormaiztegin bertan, Museo bisitatu, Kultur Etxean bideo emanaldi labur bat ikusi eta trenzuba bisitatzeko, beti ere, tren gure artera nola iritsi zen eza-gutzeko helburuz. Hauekin batera, datorren urterako erakusketa ibiltari bat prestatzen ari dira.



1967an 'Beti berriketan'

Ordiziako futbol txapelketan ez zen berriketarik 'Beti berriketan' taldearekin. Hamaika-koaren ordeez, hona hemen hamarrekoa:

Zutik: Paco Holgado, Miguel Bosque, Jose Inazio Otegi, Fernando Terradillos, Angel Rivas eta Luis Mari Txurruka.

Pikotxean: Miguel Angel Alvarez, Manu Palomo, Juanito Lasa eta Manuel Zeberio.



Aurreko aleko argazki zaharra ez zen behar zuen kalitatean atera. Hemen daude egokiago beasaindarrak:

Goiko lerroan: Patxi Etxeberria, Iñaki Urteaga, Juan Antonio Lozano, Juan Alvarez eta Antonio Somoza.

Beheran: Alfredo Igartua, Luis Gomez, Patxi Goikoetxea, Pedro Corredor, Ramon Vazquez eta Juan Karlos Lorente.


JOAKIN ALDANONDO

BULKANIZATUAK

Gurpil lanak, alineazioak
filtroak, olioak, engraseak
frenu pastila, tubo eskape, bateriak

Errota Poligonoa (IDIAZABALgo sarreran)

☎ 80 02 57



pintura eta gaineztadurak

Aita Urdaneta, 6

% 88 59 28 - 16 17 44 ORDIZIA

NEKAZALELIKAGAIEN
HERRIALDE ARTEKO
AZOKAK

F OIRES
INTERRÉGIONALES
AGROALIMENTAIRES

F ERIAS
INTERREGIONALES
AGROALIMENTARIAS

ORDIZIAN, 1996ko EKAINAREN 8an
ORDIZIA, 8 JUIN 1996
ORDIZIA, 8 DE JUNIO DE 1996

ORDUAK / HORARIO / HORAIRE:
16:30 - 21:00

ANTOLATZAILEAK / ORGANISÉ PAR / ORGANIZAN:

ORDIZIAKO UDALA



AYTO. DE ORDIZIA

EZPELETAKO UDALA



MAIRIE D'ESPELETTE

ALTSASUKO UDALA



AYTO. DE ALSASUA

DIRULAGUNTZA / SUBVENTIONNÉ PAR / SUBVENCIONAN:



DEPARTAMENTO DE PRESIDENCIA



EUSKO JAURLARITZA



CONSEIL REGIONAL D'AQUITAINE